

Barrena

EKONOMIA

Maitane Beristain itziartarrak jaso du Landaola sarietako bat

Landa eremuko emakumeek egiten duten lana aitortzen duen saria eskuratu du Lasturko aterpetxearen arduradunak / 6



GEOLOGIA ETA ESPELEOLOGIA

Debabarreneko geologia bereziaren gida ondu du Angel Maria Tobajasek

Hilaren 25ean aurkeztuko du, bi liburutan: paisaia askotarikoari eskainitakoa bata eta lurpeko gauza "harrigarriak" eskainitakoa bestea / 2



Fantasiarazko Motxila Herria

'Motxila' da mendararren izengoitia, eta beren eguna izango dute bihar, zapatua: Motxila Eguna. Eta gaur, bezpera, Motxila Herriaren miniaturazko maketa aurkeztuko dute Egoitz Horrillo eta Amagoia Basurto artisauek / 15

ASIER ORBEA

ANTZERKIA

'HhahH': denboraren albuma' obra berriarekin itzuliko da Naia Membrillera Elgoibarrera / 10



MAR DE SONORES

ESKUBALOIA

"Gazteekin lan egin nahi dut orain, Bera Bera barruan" / 19
IMANOL ALVAREZ Super Amara Bera Berako entrenatzailea



'NAIZ'



ELGOIBAR
BHI

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net

www.elgoibarbhi.eus



2026-2027 Batxilergoko aurrematrikulazio epea: martxoaren 16tik martxoaren 27ra arte (on-line zein ikastetxean)

Informazio bilera: Martxoaren 23an, Ezenarro eraikuntzan (MEKAN)

18:00etan gazteleraz, eta 18:30etan euskaraz

BATXILERGOA

GIZARTE ZIENTZIAK
HUMANITATEAK

Giza eta Gizarte zientziak

OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA

Zientziak

ARTISTIKO
MUSIKALA

Artea



Angel Maria Tobajas, bi liburuak eskuan dituela, Elgoibarko Mufomi museoan egindako argazkian. LEIZARPE ESPELEOLOGIA TALDEA

Debabarreneko paisaia geologiko askotarikoa eta lurpeko mundu harrigarria, argira

'Paisajes y parajes singulares del Bajo Deba' eta 'El asombroso mundo subterráneo del Bajo Deba' aurkeztuko ditu Morkaiko-Leizarpe espeleologia taldeko Angel Maria Tobajasek martxoaren 25ean

Ainara Argoitia ELGOIBAR

Morkaiko-Leizarpe Espeleologia taldeko lagunekin batera 54 urteko landa-lanean bildutako informazioarekin bi liburu ondu ditu Angel Maria Tobajas espeleologoak: *Paisajes y parajes singulares del Bajo Deba* (Debabarreneko paisaia eta paraje bereziak) eta *El asombroso mundo subterráneo del Bajo Deba* (Debabarreneko lurpeko mundu harrigarria). Bi liburuak Elgoibarren ditu aurkeztekoak jendaurrean, martxoaren 25ean. Aita Agirre kulturean izan-

go da aurkezpena, 19:00etan, Morkaiko mendizale elkartek antolatuta.

Ofizios irakaslea izan da Tobajas, eta antzematen zaio azalpenak emateko moduan, bai eta liburuak egituratzeko moduan ere. Zientziaren dibulgaziorako idatzi ditu biak, orain arte idatzi dituen gainerako artikulua bezala, eta argazki ikusgarri eta eskuz egindako ilustrazioekin osatu ditu azalpenak. Liburuak ez dira berriak, izatez: 2024an eman zuen argitara bata, Interneten, Debabarreneko pai-

saia eta parajeei eskainitakoa; eta iazko azaroan eseki zuen bigarrena sarean, lurpeko mundu harrigarriari dagokiona. Baina liburu formatuan ematea izan du hasieratik amets, eta, beste modurik ikusi ez duenez, autoedizioaren bidera jo du. Katalunian argitaratu dizkiote, eta 200 bat ale inprimatu ditu bakoitzetik. Orain, bi liburuak batera salduko ditu, 30 euroan. Zientziaren inguruko azalpenez gain, aldarrikapenari ere egin dio lekua liburuetan, iruditzen zaiolako, askotan, natura zaintzeko gutxieneko parametroak errespetatu gabe esku hartu dela paisaian.

Debabarreneko paisaia bereziak

Geologiaren arabera, neu- rri handi batean, paisaia, eta lehen ere esana du Tobajasek Debabarreneko geologia askotarikoa eta berezia dela. Haren esanetan, eskualde honetan bat egiten dute "bakarra eta parekorik gabea" bihurtzen duten hainbat faktore geologikok, eta balio horren parte bat aitortua du Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Debako, Mutrikuko eta Zumaiako udalerriek osatzen dute Geoparkea, eta *Flyscharen ibilbidea* eta *Karstaren ibilbidea* proiektuak garatzen ditu, bereziki, baina, Tobajasen esanetan, motz gelditzen da. Haren –eta Morkaiko-Leizarpe taldekoen– ustez, Geoparkea eskualde osoa zabaltu beharko litzateke, eta Eibartik eta Soraluzetik

itsasorainoko paisaiaren abe- rastasuna ere aintzat hartu beharko luke. Izan ere, Eibartik Debarainoko hamabi bat kilo- metroko bidean gutxienez lau paisaia daude: Eibarko flyscha, Maltzagatik Elgoibarrerako paisaia bolkanikoa, Elgoibarko paisaia sedimentarioa eta Men- dako eta Deba arteko paisaia karstikoa. Eta, horretatik guz- tiorretatik, paisaia karstikoa da, haren ustetan, denetan eze- zagunena, ikusteko ere zailena delako. Bada, aberastasun ho- rixe jaso du *Paisajes y parajes singulares del Bajo Deba* libu- ruan, 326 orrialdetan, 96 plano- rekin eta 400 argazki baino gehiagorekin lagunduta.

Liburuaz esana du bereziki paisaia karstikoa ezagutarazteko idatzi zuela, urteetako eskarmen- tuak erakutsi diolako oso kalte- bera dela karsta. Gogorarazi du Debabarreneko lau herritako herritarrek karsteko lurpeko ura behar dutela bizitzeko, eta ohar- tarazi du oraindik ere nahi bai- no gehiagotan gogorarazi behar izaten dutela inguruan egiten ari diren jarduera batzuk kalte- garriak direla, besteak beste, gure akuiferoentzat. Eta, hein batean, karstaren beraren iku- sezintasunak eragiten du hori, haren esanetan, ezagutzen ez dena nekez errespetatu ohi de- lako. Hain justu ere, horixe zu- zendu nahi izan du *El asom- broso mundo subterráneo* liburu- rekin, lurpeko gauza harrigarriak argitara emanda.

Lurpeko altxorra

Debabarreneko karstean mila leize baino gehiago daude, sako- nera handikoak, eta haien ingu- ruko argibideak bildu ditu biga- rren liburuan, espeleologian ohiko diren gidaliburuetakoa eskema jarraituta. Hala, lehe- nengo atalean, eskualdean iden- tifikatuak dituzten leizeen bar- runbean ezaugarrietan jarri du arreta; bereziki, luzera eta sako- nera handieneko leizeenean. "Iberiar penintsulan badaude kilometro eta erdiko sakonera duten leizeak, baina mailakatuak dira. Bertikalean 100 metroko sakonera baino handiagoa duten leizeak topatzea salbuespena izan ohi da, badauden arren banaka batzuk; handiena, Kantabrian, Torka del Porron izenekoa, 436 metrorekin. Debabarrena, baina, berezia da horretan ere. Hemen badaude 100 metrotik gorako sakonera duten leizeak; ezagu-

nena, Mendaroko Aitzbeltz leizea, ia 200 metro sakon dena. Leizean behera jaustako sedimentuen- gatik ez balitz, baina, sakonagoa litzateke. Gauza bera gertatzen da Mantarregin (162 metro), Gau- sitxan (120 metro), Txoriaitzen (119 metro)...

Bigarren atal batean, barrun- beetan kataklismoak –fenomeno natural batek eragindako hon- damendia– gerta daitezkeela adierazten duten fenomenoak behatu ditu, Leizarpeko espe- leologoek ustez nabarmentzeko eta ikertzeko modukoak direnak. Era berean, haitzuloetan dauden espeleotema edo formazio mi- neral askotarikoak ere aztertut- tu, eta bioespeleologiari ere egin dio aipamen bat: haitzulo- tan bizi diren izaki bizidunak zerrendatu ditu.

Liburuko atalik mardulena, baina, lurpeko urari eskainita- koa da, Debabarreneko lau uda- lerrri lurpeko urez hornitzen dira-eta gaur egun. "Lurpeko ura altxor hidrogeologiko han- dia da, daukagun altxor handie- netako bat, garbi esateko, zei- naren inguruko informazio eta kontzientzia handirik ez dugun. Oso garrantzitsua da, baina, lur azpiko ur hori zaintzea eta gor- putz-arima babestea", dio Toba- jasek horren harira. Urari es- kaintakoa atalak baditu hiru azpiatal berezi: Kilimon erreka- ren geldialdiei eskainitakoa, Debabarreneko espeleobuzoari eskainitakoa eta karstaren baso-estalkiaren ingurukoa. "Nor- baitek pentsa dezake azkeneko horrek, karstaren baso-estalkiak, ez duela zerikusirik lur azpiko urekin, baina justu kontrakoa da, lotura zuzen-zuzena baitu. Izan ere, baso-estalki horixe da gure uren babesgarri handiena, eta horretan berri eman nahi izan dugu liburuia ixteko".

Geoparkea eskualde osora zabaltu beharko litzatekeela uste du Morkaiko-Leizarpe taldeak

Debabarreneko gida osatzen dute bi liburuak, eta batera salduko ditu, 30 euroan

Maltzaga-Soraluze bidegorria eraikitze lanak 2027an hasiko dituzte

Proiektuak Debabarreneko eta Debagoieneko bidegorriak lotuko ditu

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA

Astelehen goizean, Jose Ignacio Asensio Jasangarritasun diputatuak eta Jon Iraola eta Unai Larreategi Eibarko eta Soraluzeko alkateak agerraldia egin zuten Maltzagan, eta, bertan iragarri zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen astetan lizitatuko ditu Maltzaga eta Soraluze arteko bidegorriaren proiektua erredaktatzeko lanak. Proiektuan zehaztuko dituzte bidegorriaren behin betiko trazadura, epeak eta gauzatzeko aurrekontua.

Aldundiko iturriek adierazi dutenez, "teknikoki konplexua den trazadura da, [bidegorria] zenbait puntutan mendi-hegaletatik eta lehendik dauden azpiegituretatik hurbil" igarotzen delako.

Jose Ignacio Asensio diputatuak nabarmendu zuenez,



Erakundeetako ordezkariak, astelehenean, Maltzagan. FORU ALDUNDIA

proiektua "urrats erabakigarria" izango da "Deba haranarekin zor historiko bat kitatzeko". Izan ere, Asensioren esanetan, proiektu horrek "milaka pertsonaren eguneroko mugikortasuna hobetuko du, eta es-

kualdeen arteko eguneroko joan-etorriak oinez eta bizikletaz egitea erraztu".

Maltzaga-Soraluze arteko bidegorria eraikitzea eskari historikoa izan da, bi bailaretako udalen partetik.

Lotura garrantzitsua

Jon Iraola Eibarko alkateak azpimarratu zuen proiektuak herritarren mugikortasunerako ekarriko duen aurrerapausoa: "Eibarrentzat eta eskualde osoarentzat mugikortasun seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa errazteko aukera da, pertsona askok oinez edo bizikletaz mugitu ahal izan daitezen gaur egun etengabe konektatuta ez dauden herrien artean".

Unai Larreategi Soraluzeko alkatearen ustez ere oso garrantzitsua da bidegorri zati hori osatzea: "Soraluzetarren ongizatea hobetzeko proiektu estrategikoetako bat abian jartzera doala ikusteak asko pozten gaitu, eta iragarri nahi dugu Soraluzeko Udalak aurtengo urtean aztertuko duela nola lotu bi bidegorriak herri barruan. Gaurkoa izan dadila lehen pausoa bi eskualdeen arteko eguneroko mugikortasuna hobetzeko bidean Maltzagak izan dezakeen egitekoa indartzeko; izan ere, bidegorriaz gain, autobus eta tren zerbitzua hobetzeko ere potentzial handiko gunea dela deritzogu".

Hilaren 31 da Salto! udalekuetan izena emateko azken eguna



Artxiboko argazki bat. UEMA

2008 eta 2011. urteen artean jaiotako gazteek izango dute UEMAren Salto! udalekuetan parte hartzeko aukera, eta bi txanda izango dira: ekainaren 23tik uztailaren 1era eta uztailaren 3tik 11ra. Azken urteetan bezala, ibiltaria izango da ekimena: Markina-Xemeinen hasi eta Aulesti eta Berriatua zeharkatu ondoren, Ondarroara iritsiko dira gazteak. Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziazatzea eta saretzea da Salto! udalekuen helburua.



Topinburun makroaerosorgailu baten diametroa irudikatu zuten, giza katea eginez. ANDER AZKUE

Ehunka lagunek salatu zituzten zentral eolikoak eragingo lituzkeen kalteak

Ubane Madera DEBABARRENA

Oso jendetsua izan zen joan den zapatuan Basalgo zentral eolikoaren kontra egin zuten mendi martxa. Eibarko, Bergarako, Soraluzeko, Elgetako, Elgoibarko eta beste hainbat lekutako ehunka bizilagun Topinburuko tontorrean elkartu ziren. Hain zuzen, proiektuak jasotzen dituen sei makroaerosorgailuetako bat

instalatzek izango lukeen inpaktua irudikatu zuten han, giza kate batekin errota baten diametroa osatuz.

Agerraldia Diputazioan

Aldi berean, Arena Power enpresak garatu nahi duen proiektuaren xehetasunei, ondorioei "eta maila guztietan kalte larriak ekarriko lituzkeen proiektua"

geldiarazteko egiten ari diren urratsei buruzko informazioa partekatu zuten. Besteak beste, esan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin duela Eibarko Mendiak Bizirik plataforma herrikoiares eskaera eta taldeko ordezkariak agerraldia egingo dutela Jasangarritasun batzordean martxoko azken astean. Helburua da "lurraldeko ordezkariari bertatik bertara azaltzea milaka herritar Basalgoko proiektuaren aurka jartzera bultzatu zituzten arrazoiak".

Instalazio fotovoltaikoak jartzeko dirulaguntzak

Asteon, Gipuzkoako Foru Aldundiak eguzki-instalazioak jartzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ditu Gipuzkoako Buletinean. Gipuzkoako 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri edo lurralde eremuei zuzendutako deialdia da eta tokian tokiko udalek eta toki-entitate txikiak jaso ahal izango dituzte laguntzak. Hain justu, tokiko

energia-komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboko araubideko udal estalkietan edota estalki pribatuetan eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezar daitezten sustatzeko dirulaguntzak dira. 481.500,00 euroko dirulaguntza-lerroa bideratuko du horretara.

Zabalik dago laguntzok eskatzeko epea. Iragarkia argitaratzen denetik hogeita egun baliaduneko epea ezarri dute. Eskaerak Internet bidez aurkeztu behar dira, derrigorrez, <https://egoitza.gipuzkoa.eus> atarian.

Probidentzia Andra Mari ikastetxea
www.aldatze.eus

B eredua

aldatze

Eskabideak egiteko epea: Martxoaren 16tik 27ra

943 70 11 50 / aldatze@aldatze.org

"Internet ez da toki segurua adingabeentzat"

TELMO LAZKANO OSASUN ETA HEZKUNTZA DIGITALEAN ADITUA

16 urtez azpikoei sare sozialetarako sarbidea debekatzea proposatu du Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek iragarritako neurriek aurrera eginez gero, Hego Euskal Herriko 16 urtetik beherako adingabeek ezingo dituzte sare sozialak erabili. Ingurune Digitalean Adingabeak Babesteko Legea Europako beste hainbat herrialdetan ere indarrean dago jada, eta Espainiako Kongresuan tramitatzen ari dira orain. Neurri horrek ekarriko dituen aldaketan berri eman dio BARRENA-ri Telmo Lazkanok (Zumaia, 1994), Altxa Burua Mugimenduko ordezkariak.

16 urtetik beherakoek ezingo dituzte sare sozialak erabili. Zer esan nahi du horrek, zehazki?

Titular hori eman dute, baina lege berri honek zehazten duena da enpresa jakin batzuei debekatu egingo zaiela nerabeengana iristea. Sare sozial terminoa oso zabala da, eta zehaztu egin behar da zein produktuz hitz egiten ari garen, baina erabiltzaile gehien duten sare sozialei, behintzat, eragingo die. Azken batean, lortu nahi dute offline-munduan dagoen legedia online-munduan aplikatzea. Esaterako, offline-munduan eraso matxista bat egiten duenari urruntze agindua jartzen bazaio, eraso hori sarean egiten duenari ere zigor bera aplikatuko zaio. **Orain ere, berez, 16 urtetik gorakoentzat dira sare sozialak, baina adinaren kontrolari iskin egiten diote askok. Lege horrekin hori aldatu egingo da?**

Bai, adina kontrolatzeko sistema zorrotzagoa ezarriko dute, eta suposatzen da ez dela hain erraza izango 18 urte dituzula esatea. Hala ere, beti egongo da zirrikituren bat, baina ez da izango orain bezain erraza. Aldaketa handiena izango da lege berri horrek enpresak egingo dituela erantzule, eta ez nerabeak. Berez, lege horrek nerabeei ez die ezer debekatuko. Esan nahi dudana da offline-munduan diskoteka baten sartzeari ez zaiola debekatzen nerabeari; alderantziz da, diskotekari debekatzen zaio nerabea diskotekan sartzeari, eta hori zain-

tzeko jartzen du atezaina atean. Hala eta guztiz ere, neraberen bat diskotekan sartzen bada, isuna ez du hark edo familiak ordaintzen, baizik eta diskotekak berak. Sare sozialekin gauza bera gertatuko da: teknologia enpresei debekatu egingo zaie euren produktu kaltegarriekin nerabeengana iristea, eta erantzuleak enpresak eurak izango dira. Hortaz, 16 urtetik beherakoren batek lortzen badu sartu behar ez den sare sozialen batean sartzeari, isuna enpresak ordaindu beharko luke. Australian hasi dira legea aplikatzen, eta isuna nerabea 49,5 milioi dolarrekoa da. Australian oso ondo funtzionatzen ari da, eta, batzuek kontrolari iskin egin badiote ere, nerabeen hiru laurden sare sozialei kanpo daude.

Nola hartu duzue berria?

Berri ona da. Azken batean, offline-munduan legezkoa ez dena online-munduan ere ez izatea ekarriko du. Adina arrisku-faktore handia da, eta horri heltzea beti da berri ona, baina horrekin bakarrik ez da konponduko egoera; izan ere, ez da nerabeen egoera soilik; gizarte osoari eragiten dio horrek. Derrigorrezkoa da enpresa horiek legez erregulatzea, ez dira-eta eurak autorregulatuko. Alde horretatik, oso pozgarria da Europa esnatu izana eta kontzientzia hartu izana arlo digitala arautzearen beharraz. Europako Batasuna horretan ari da, eta, Altxa Burua Mugimenduaren ustez, adina arautzea oso garrantzitsua da, baina badakigu puzzle oso konplexu baten pieza bat besterik ez dela. Adibide bat jarriko dut: supermerkatuak joaten garenean badakigu edozein produktu eros dezakegula, eta ez dela kutsatuta egongo, kalitate-kontrol guztiak pasatu dituelako; Interneten ez da hori gertatzen, eta erabiltzaileok ez dakigu kontsumitzen ditugun produktuak zenbaterainoko kutsakorrak diren. Gaur egun, inork ez daki Tiktoken edo Instagramen algoritmoak nola funtzionatzen duen, eta dakigun apurra oso larria da. Produktu kutsakor horiek kon-



Telmo Lazkano. T.L.

tsumitzen dituzten nerabeak gaixotu egiten dira, eta hori ez da bidezkoa.

Zer lortu behar dugu?

Helburua da Internet eta sare sozialak ingurune segurua, osasuntsu eta egokia izatea guztiontzat, baina gaur egun hori oso urrun dago. Gaur-gaurkoz, Internet ez da toki segurua nerabeentzat. Enpresa horiek nahi dute nerabea ahalik eta denbora gehien egotea pantaila aurrean, eta zenbat eta denbora gehiago egon, orduan eta informazio gehiago eskuratzen dute. Ondorioz, eragin-ahalmen handiagoa dute nerabearengan, eta informazio hori oso baliotsua da, gero saldu egiten dutelako. Adibidez, Instagramek ikusten badu nerabe batek *selfie*-ak kentzen dituela saretik, ondorioztatzen du autoestimua baxua duela, eta hasiko zaizkio kosmetika-enpresak denetik eskaintzen, itxura degerragoa izan dezan. Haurrak gazteak izan baino lehen ari dira "zahartzarria borrokatzen" eta hori ez da ausaz gertatzen.

Enpresa oso indartsuak daude sare sozialen atzean. Uste duzu lege horrek lortuko duela haiei irabaztea?

Ez da erraza izango, baina, nolabait, arautu egin behar da hori guztiori. Enpresa horiek hainbat estatu baino boteretsuagoak dira, izugarria da zein indar daukaten. Applek 2021ean lortu zuen Erresuma Batuko barne produktu gordina baino aberastasun handiagoa. Hortaz, horrelako enpresek presio handia eragiten dute, eta gauzak oso mantso doaz, baina badoaz. Zorionez, sare sozialen erabilerrakoa adina atzeratzearen kontuak adostasun handia dauka Europan. Madril oso polarizatuta dago politikoki, baina gai honetan inkestek diote %80ko adostasuna dagoela, eta PPK ere alde bozkatzeko aukera handia dago. Deigarria da baita ere gai horren gainean 18 eta 25 urte arteko gazteek duten iritzia: galdetuta anai-arreba txikiei ea utziko lioketen smartphonea edo sare sozialekin ibiltzea, %70ek esaten dute ezetz, eta oso ondo arrazoi-tzen dute, gainera.

Altxa Burua Mugimenduak ere hasieratik defendatu du 16 urtera arte ez ematea smartphonea seme-alabei. Zein da egungo egoera?

Gure helburua ez da 16 urtera arte smartphonea debekatzea,

"Helburua da Internet eta sare sozialak ingurune segurua, osasuntsu eta egokia izatea"

"Offline-munduan legezkoa ez dena online-munduan ere ez izatea ekarriko du lege berriak"

baizik eta atzeratzea, eta atzeratze hori baliatzea umeak hezteko, erabilera arduratsuan. Heziketa funtsezkoa da. Mugimendua martxan jarri zenetik emaitza onak lortu dira, eta herri askotan lortu da atzeratzea. EAEko hiru probintzietan dau-de martxan taldeak, baina kezkatuta gaude erreleboarekin. Mugimenduak sendo jarraitzeko ezinbestekoa da taldeetan jende berria sartzeari. Ebidentziek erakusten dute: pantaila itzaltakoan, bizitza pizten da.

"Bihotzarekin konposatzen dut, nire arimarekin"

MIKEL GOROSABEL GARAI EH SUKARRA TALDEKO ABESLARIA, GITARRA-JOLEA ETA KONPOSITOREA

Aparretan dabil EH Sukarra taldea: agenda betea izateaz aparte, 'Aspaldiko loreak' kantuak, adibidez, ia bi milioi ikustaldi ditu

Ubane Madera Zangitu EIBAR

Mikel Gorosabel Garai Norton (Eibar, 1967), Cesar Tejada Belda (Eibar, 1968) eta Loiola Madera Zangitu (Soraluze, 1979) musikariek osatzen dute EH Sukarra. 40' Rock jaialdian egon berri dira eta agenda bete-betea dute. Eibarko lokalean entsegua egin aurretik erantzun ditu Gorosabelek BARRENAren galderak.

Gaur, barikua, Soraluzeko Asigor tabernan joko duzu zeuk; zelako kontzertua izango da?

Izango dira Loreleiren eta barkarkako *Barne basoan barna* nire diskoko kantutak, eta EH Sukarraren batzuk ere bai.

40' Rocken jende asko egon zen zuenean; eta, batez ere, gazteak.

Bai. Horrela izaten ari da azken boladan.

Hori ez da gauza makala, ala?

Uhinak (2013) eta *Azken gezia* (2015) diskoekin arrakasta izan dugu gazteen artean. *Azken biztanleak* (*Uhinak*) gure lehen bideoklipa argitaratu genuen 2013an. Aro berri honen hasiera izan zela esango nuke; 2015ean, *Aspaldiko loreak* kantu-bideoa argitaratu genuen, eta arrakasta izan du. Orain, gazteek kantatu egiten dute zuzenekoetan. Kamiñazpiko ekaineko kontzertuan hasi ginen hori nabaritzen. Lehen aldia izan zen *Aspaldiko loreak*-en ni isildu eta publikoak kantatzen zuena. 40' Rocken izan zen nabariena; baina aurretik, Iparraldean jo genuen batean, Loiolak esan zidan: "Mikel, Iparraldean kantu berriak zaharrak baino hobeto dakizkitez". Iparraldean, eta hemen ere bai gazteek. **Zuek horrekin pozik, ala?**

Guretzat hori da saria. Gure *arrakasta* hona heltzeko egin dugun ibilbidea da.

Batzuk joan eta bueltatu egin dira; zuek ez zarete joan.

Ez, gu ez gara inoiz joan; pentsatu izan da joan garela, baina ez gara inoiz joan. Gorpuztak ematen ez digunean joango gara. Ez dugu horrelako agurrik egiteko asmorik. Agurrak, gehienetan, marketin kontutak izaten dira, gaur agurtu eta bihar banator.



EH Sukarrak Durangoko Landako gunea bete egin zuen 40' Rock jaialdian. AITZOL ZAMALLOA

Kantu eta bideoklip berria duzue: *Agurren balada*.

Azaroan kaleratu genuen. Eñaut Gaztañagarekin grabatu dugu, hark Zestoan duen estudioan. Oso pozik gaude harekin egin dugun grabaketarekin.

Diskorik aterako duzue?

Ez dakit. Kantu solteak argitaratzea da momentuz daukagun asmoa. Loreleirekin taldearen hirugarren diskoa kaleratu genuen 2022an, *Ekografiak*. Disko kontzeptuala. Sekulako kantutak agertzen dira bertan, inor ez da enteratu. Asier Serranorekin lotura handia daukat. Letragile pertsonala izateaz gain, harreman estua daukagu. *Anaiak* gara. *Agurren balada* kantuko hitzak ere dotore egin ditu. Nire eta EH Sukarraren azalean murgiltzen da magiaz Asier. Hari ere zor diogu gaur egungo arrakasta.

Udaberri eta udarako ere nahikotxo hitzordu dituzue, ezta?

Bai, hala da. Euskal Herriko hainbat plazatan egongo gara.

***Aspaldiko loreak*-ek EH Sukarra kantua pasatu du *ranking*-ean...**

Bai, baina guri ez zaigu inporta zenbat *play* dituen. Hori nahiko berria da. Orain dela hamar urte

atera genuen *Aspaldiko loreak*, eta ekainean hasi ziren gazteak kantatzen kontzertuetan. Lehen aldia izan zen ez nuena estribilloa nik kantatzen, eurek kantatzen zutelako. Ordutik, beste plaza batzuetan ere gertatu da; 40' Rocken izan da nabariena. Emozioz eta ilusioz bete gaitu.

Horren arrazoia badakizue? Zergatik kantu hori? Zergatik orain?

Kantu batek arrakasta duenean arrazoiaren batengatik izaten da. Jendeak irizpide ona dauka.

***Azken gezia* diskoan igarri duzue?**

Bai, eta *Uhinak*-en ere bai. Kontua izan da 2013an eta 2015ean bi disko atera genituela, 2002tik atera barik egon ondoren, 11 urte. Jotzen jarraitu izan dugu, kontzertu gutxi batzuk. Taldearen aldaketak ere izan du eragina bilakaeran.

Orain, egonkortuago zaudete?

Gaztetasuna galdu dugu, baina gaur egun talde askoz helduagoa gara. Cesarren, Loiolaren eta nire artean daukagun harreman estua eta gatazkarik gabekoak asko laguntzen du horretan. Ezinbestekoa ikusten dut edozein musika proiektutan musikarion arteko harremana eta ulermena. Musikari ona izatea baino ga-

rrantzitsuagoa dela esango nuke. Bestela, makina ez dabil ondo.

Kontzertuen ugaritzea ere hortik dator?

Alde batetik, bai. Azaroan kaleratu dugun *Agurren balada* kantuari eta Nerea Kortabitarteren laguntzarekin egindako promoa-ri esker jendea enteratu egin da. Hedabide instituzionalek, urte askotan ohituta gauden bezala, kasu gutxi egin digute oraingoan ere, edo batere ez. Baina argi ikusten da gero eta nabariagoa dela euren ahultasuna. Urte batzuk daramatzagu plazak betetzen.

"Hedabide instituzionalek kasu gutxi egin arren, 2013tik daramagu plazak betetzen"

MIKEL GOROSABEL GARAI



2013tik hona. Ordutik joan da gorantz. 2002tik diskorik kaleratu gabe egonda, *Uhinak* kaleratu genuenean zalantza zegoen. Entzule batzuek nahi izan zuten nik beraiek uste zutena egitea; EH Sukarraren lehen diskoko kontzeptua jarraituz, adibidez. *EH Sukarra* diskotik kantu-sorta ederra jotzen dugu gaur egun ere, baina garai haietan izan nuen musika egiteko modua pasatu da. Orain, orainean nago. Guretzako diskorik garrantzitsuena izan da, dudarik gabe. Hala ere, neure buruari egiten diot kasu, aurrera egin dut. Errezeta nik buruan izan dudana izan da, kanpoko eraginik gabe.

Zelan definituko zenuke zure garapena?

Lehenengo, apustua egin behar da, *musikari* izatea, profesional moduan bizi ahal izateko. Gizar-teak oso gutxi laguntzen du horretan. *Musikari* asko dago edonon: "*¿A qué te dedicas?*"; *Soy músico*; "*Ah, mi nieto también toca la guitarra*". Sarritan, *gogorra* egiten da. Korrontearen aurka arraunean ibiltzea ez da erraza, baina bai beharrezkoa. Saltsan murgilduta egotea da kontua, egin eta egin, eta, horrela, doinuak irteten joaten dira.

Baina musikari moduan ere zure musiketan beste sakontasun bat ere igartzen da, ala?

Nik bihotzarekin konposatzen dut, nire arimarekin. Ideia on bat datorrenean, aurretik egin duzun ibilbidearen saria izaten da. Merzitatiko saria. Bestela, kantu perfektuak izango nituzke, eta ez ditut halakoak topatzen. Ni kantuehiztaria naiz, melodia-ehiztaria. Ez naiz obsesionatzen, baina hor egon behar da.

EH Sukarra kantutak zergatik du horrenbesteko indarra? Kristorena delako, ezta?

Noski; 14 urterekin sortu nuen, Eibarko institutuan *txikerra* egin nuen batean. Orain, produktore batek *EH Sukarra* kantutak sarre-luzeegia duela esango luke, seguruenik. Ahotsa lehenago sartu beharko zela. Gaur egun, hiru segundo entzun eta hurrengo kantara pasatzen dira musika entzule gehienak.



Landaola sariaren irabazleak, agintariekin joan den ostiraleko sari-banaketa ekitaldian. AINARA ARGOITIA

Lasturko aterpetxearen arduradun Maitane Beristainek jaso du Landaola sarietako bat

Emakumeek egiten duten "lan ikusezina" aitortzeko saria eskuratu du

Ainara Argoitia MENDARO

Landaola sariak banatu zituzten joan den ostiralean Mendaron. Erakunde publiko eta pribatuen sailean hamabi hautagai zeuden. Landaola Federazioa osatzen duten Gipuzkoako sei landa-garapen elkarteek aurkeztu ohi dituzte hautagaiak, bakoitzak bana. Debabarrenetik, beraz, bi hautagai proposatuak zituen Debemenek: Eibarko Basagune kontsumo-elkarte ekologikoa, erakunde pribatuen atalean, eta Itziarko Auzo Udala, erakunde publikoen sailean. Azataporrue kontsumo elkartearen oinarritu-

tako elkarte ekologikoa da Basagune. Azataporruek urteetan egin du lan elikadura ekologikoaren alde, baina herritar gehiagorengana iristeko eta eragin soziala handitzeko sortu zuten Basagune zuzeneko salerosketa-gunea. Itziarko Auzo Elkarte, berriz, Eskola Txikia lortzeko egindako hogeitak gorako lanagatik zegoen hautagaien artean. Datorren ikasturtean, lehen aldiz, Itziarrek Eskola Txiki propioa izango du, eta, horri esker, 12 urte bitarteko herriko ikasleek hezkuntza herrian bertan jaso ahal izango

dute. Horrek eragin positiboa izango du Itziarko egunerokoan, bai herri izaeran eta baita komunitatea sendotzeko orduan ere. Hala ere, hautagai izateak ematen duen poz horrekin gelditu behar izan zuten bata zein besteak, sariak Oiartzungo Biziraun Baserritar Elkartearentzat eta Itsasoko Sindikatoa herri-dendarentzako izan ziren eta. Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Nekazaritzako eta Lurralde Oreekako zuzendari Joseba Aranburuk eta Mendaroko alkate Enez Ezenarrok eman zizkieten sariak.

Nolanahi ere, beste bi sari ere banatu zituzten: Emakumeak Landa Eremuan Saria eta Urteetako Ibilbidea Saria. Aurreko bi sarietan ez bezala, haietan ez zuten antolatzaileek ezer aurreratu, eta ekitaldian bertan ezagutarazi zituzten irabazleak. Maitane Beristainek (Lastur, 1980) jaso zuen landa eremuetan emakumeek egiten duten "lan ikusezina" aitortzeko eman ohi duten Emakumeak Landa Eremuan Saria, eta Tolosako Aldaba Zahar ustiatetik Xabier Almandozek eskuratu zuen urteetan egindako lan ona saritzeko eman ohi dutena. Jaurlaritzako Landa Garapenerako zuzendari Joseba Terrerosek eman zion saria Beristaini, eta Landaola Fundazioko lehendakari den Eneko Maiozek Almandoz.

Maitane Beristain

Lasturko aterpetxea kudeatzen hasi zen 2004an, baina, geroztik, tabernaren eta landetxearen ardurari ere eutsi dio. Ostatu zerbitzuaz gain, bisitariak hartu, bisita gidatuak eta tailerrak antolatu eta auzoa aktibo mantentzen ditu. 2018an, gainera, Ainhoa Galladorekin batera kooperatiba bat sortu zuen Lasturren.

Tolosako Aldaba Zahar ustiatetik

Ustiatetik txiki baten bideragarritasuna, "tokiko elikadura katearen sendotzea eta gizartean nekazariaren lanari berriro ere balioa ematea" uztartu ditu us-

tiategiko arduradun Xabier Almandozek. Horregatik, "nekezaritzaren eredu aurrerakoiaren eta konprometituen adibide argia" izan da Tolosaldean. Intentsifikazio-eredua nagusi zen garaian hasi zuten proiektua, eta eskala txikiko, gertuko eta lurraldearekiko lotutako planteamendua jarri zuten erdigunean.

Oiartzungo Biziraun baserritar elkarte

Hain zuzen ere, Oiartzungo nekazari eta abeltzainen sektorea sustatzea eta indartzea ditu helburu, eta sektoreko profesionalen laguntzea egiteko nagusi. Haietaz baserria da elikadura-sistemaren oinarria, eta "paisaiaren zaintza, biodibertsitatearen babesa eta komunitatearen kohesioa" bermatzen dituen bizimodua da baserrikoa. Iaz, bi egitasmo jarri zituzten martxan: herriko gazteentzako udako praktiken programa eta herriko baserrietan gizendutako txekorren okela Oiartzunen bertan merkaturatzeko ekimena.

Itsasoko Sindikato herri-denda

Itsaso 600 biztanle inguruko herria da, eta denda hori funtsezko bihurtu da eguneroko erosketak herrian bertan egin ditzaten herritarrek. Bost ekoizleren eta hiru artisaren produktuekin hornitzen dute, eta 67 bazkide ditu. Zapatuetan, goizez, publikoari zabaltzen diote bazkide boluntarioek.

"Biharko erronkei indar handiagok ekiteko ilusioa eman dit sariak"

MAITANE BERISTAIN SALEGI

EMAKUMEAK LANDA EREMUAN LANDAOLA SARIAREN IRABAZLEA

Bere proiektuan sinistu duten guztiei eskaini zien Landaola saria Maitane Beristainek ostiralean. Etxekoak, Ainhoa Gallardo bazkidea eta lagun ugari zituen begira publikotik. Izan ere, Itziarko Auzo Udala ere Landaola sari bat jasotzeko hautagaien artean zegoen, eta edozein ziren Itziartik Mendarora etorritakoak. Txalo zaparrada handi batekin hartu zuten guztiek Beristain, Lasturko bihotza taupa-taupa jarri duen ekintzailea.

Zorionak, Maitane! Nola zaude?

Poz-pozik. Saria jasotzeko hautagaien artean egotea bera sari bat da, izatez, eta gaur niri tokatu zait saria jasotzea; beraz, momentu honetan, pozarren, egia esan. Ez dakit saria jaso osteko hitzartzean esan dudana, baina jakin badakit zenbat lan egin duten eta egiten duten gaur hautagai izan diren guztiek, eta lan horri ikusgarritasuna ematea eta egindako guztiari balioa ematea garrantzitsua da.

Gainera, banekien Itziarko Udala Auzo ere hautagaien artean zegoela, Eskola Txikiaren proiektuagatik, eta, egia esan, poz-pozik nago guztiagatik.

Sari handia jaso duzu:

Emakumeak Landa Eremuan Saria.

Bai, sariak ordezkatzeko duena da handia. Landa eremuan beti izan dira emakumeak, beti egin dute lan handia, eta horri aitortza egiteko saria jaso izana handia da. Urte hauetan guztietan aberasgarria zera izan da: nik sinistu nuen proiektu hartan besteek ere sinistu izana eta elkarrekin gauzatu izana.

Zer da gaur Lastur? Zertan datza zuen proiektua?

Bertakoa izanda, gauza asko esango nizkizuke Lasturri buruz, baina esango dizut nortasun



Maitane Beristain eta Ainhoa Gallardo.

handia duen auzoa dela. 2004. urtean egin nuen auzoko proiektuan buru-belarri sartzeko apustu hura, ordura arteko lanak lagata. Aterpetzea kudeatzeko aurkeztu nintzen. Geroztik, bidea luzea izan da, eta gorabeheratsua ere bai, obrak, jabetzak eta bestelakoak tarteko, baina 2015. urtean aterpetxearekin jarraitzeko hitzarmena sinatu genuen berriro

Udalarekin. Eta orduan hasi ginen auzoko taberna kudeatzen ere. Auzoa dinamizatzeke egiteko horretan bidelagun asko izan ditut tarte honetan guztian, eta horietako bat izan da Ainhoa Gallardo. 2016an ezagutu nuen Ainhoa, zalditegiko proiektuan, eta lankidetzara proposatu nion. Hala hasi ginen elkarlanean auzoa dinamizatzen, eta 2018an kooperatiba sortu genuen elkarrekin.

Arnasa da saria, ondo egindako lana balioesten duen heinean, eta akuilua ere izan daiteke, proiektu berriei ekiteko. Zer da zuretzat?

Etorkizuneko erronkei indar handiagok ekiteko ilusioa. Izan ere, aterpetxea kudeatzen jarraitzeko kontratua luzatu diguten aste berean jaso dugu.

Barrena[!]

BATZEN GAITUEN
DISTANTZIA

0
km



HEDABIDEekin
ERE BAI

NIRE USTEZ

Lapiko (1)

ANGEL UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Aspaldiko kontuak dira; ia lapikoa bera bezain zaharrak. Anaia arteko azken gerratean, 1936an hasi zen hartan, gurean inork ez zuen gerrara joan beharrik izan. Aita zenak bazituen 40 urtetik gora eta seme zaharrenak, 15. Ikusle eta entzule izatea egokitu zitzaien nire guraso eta anaia-arrebei. Hurbileko entzule eta ikusle, dena den. Izan ere, Elgoibar inguruan, aldi luze batez, gerlariak ez aurrera eta ez atzera egon ziren bezala, berdin han ere. Berritxu erdian geratzen zen eta Mutriku aldeko Madalena auzotik zetozen frankistak, eta Milloin, Lekeitio partera dagoen gaineko Eizmendin, gudariak erasoei eusten. Frontea gelditi.

Anaia nagusietako bat joaten zen gudarien aginte-postura, aitarentzat *salbokonduktoa* eskatzera. Herrira zerbait egitera joan nahi bazuen, haren beharra zuen. Ni oraindik jaiotzeke. Etxean entzundako historia hauek *Milloitik mundura* (2008) liburuan emanak ditut, xehetasun eta guzti, baina gaurkoan lapikoak eraman du nire memoria urte haietara. Bi urtetik behin, ia hutsik egin gabe, seme edo alaba berria iristen zen gure sukaldera. Hala iritsi zen orain Italian ezkondata bizi

den nire arreba nagusietako bat, Julia (Giulia), 1936ko urrian. Frankistek botatzen zituzten kainonazo banakak, Eizmendi eta Milloi gaina huts eginda, gure baserriaren (Ikaran Nagusia) teilatu gainetik pasatzen ei ziren txistuka eta alboko soroan *dsaust!* sartu. Aitzurrarekin lanera ateratzen zirenek, burutik behera zakua babes... *"txaleko antibalas"*.

Kontua da frankistek aurrera egin zutenean, 1937ko udaberrian, Lekeitio aldera bidean, gure baserria hartu zutela afaldu eta gaua egiteko ostatu. Hala bete zuen gurean gau bat kapitain estremeñua zuen italiar konpainia batek; Mussolinik bidalitako *camicie nere* (alkandora beltzak). Gauean, arto eta esnea afalduz, 5 hilabeteko Julia (Giulia) zerabilten besoz beso eta ferekaz fereka. Ama zenak esaten zuenez, haiek ez zuten gerrarako afan handirik. Euren etxeetan utzitako guraso eta umeen akordua

"Bi urtetik behin, ia hutsik egin gabe, seme edo alaba berria iristen zen gure sukaldera"

nagusi, kontizu. Nola diren kontuak! Gaur egun Italiako Piamonten bizi da arreba Giulia, bere familiarekin, umetan entzundako hizkera musikatzuz inguraturik.

Itzul nadin lapikora. Julia jaio zenean *frontea* gelditi zegoen Milloiko Eizmendin, eta bataiatzera Amorotora eraman behar. Orduan, bataiatze kontu horrekin erne ibili beharra zegoen. Bataiatu barik hilez gero, umeak ez zirela zerura joaten. *Linbo*-ra joaten zirela. Horregatik prestatu ziren anaia eta arreba nagusia umea Amorotora eramateko. Hango apaizak galdetu zer izen jarri nahi zioten jaioberriari, eta, dudak uxatu nahian esan: "Ez emon buelta asko. Bardin da Lapiko jarrita be".

Gerora, zenbat barre eta algara izen hori dela eta! Ondo pentsatuz gero, denok gara zeren edo haren lapiko.

Lapikoa eta lapikokoa funtsezkoak dira bizirauteko. Euskarari askotan agertzen den hitza edo berba: berbalapiko, kontakatilu, hitzontzi. Tontolapiko ere oso erabilia da, eta askotan ez motibo barik. Gezurlapiko, kexulapiko, ozpinlapiko... Gure Milloiko auzo eskolan (p)uzkerlapiko deitzen genion bat daukat gogoan. Hark ere emango zituen motiboak.

GUTUNAK

Rokodromoari buruzko albistearen harira

IOSU MERINO

ELGOIBAR

Urtarrilean rokodromoa guztiz lagata zegoenez, 120 sinadura bildu genituen erabiltzeen artean, eta, idatzi baten bidez, Udalean aurkeztu genituen.

Eskatzen genuena rokodromoaren egoera eguneratzea zen, eta laguntzeko prest geundela azaltzen genuen idatzian.

Bi hilabete pasatu dira, eta astelehenean kirol patronatuaren mezu bat jaso genuen, zein hobekuntza egingo dituzten jakinarazten.

Berriz ere, guri –erabiltzei– kontsultatu gabe. Egun berean aldizkarietan notizia bat atera zuten, eskalada eta rokodromoarekiko duten konpromisoa nabarmenduz, eta eskalatzaileekin elkarlanean hartutako erabakiak azaltzen.

Notizia horretan diotena gezurra izateaz gain, Elgoibarko eskalatzaileekiko errespetu falta itzela da. Patronatuak eskalatzaile batekin hitz egin du –kexa bat jarri zuelako– eta kontaktu hori eduki izana kolektibo batekin elkarlanean egon izan balitz bezala saltzen saiatu da.

Guk gauzak ahalik eta hoberen egitea nahi dugu, baina badirudi beste aldetik ez dagoela interes askorik. Pentsatzen dugu orain dela etorkizunera begiratzeko momentua, eta erabakitzeke zer rokodromo behar den

umeek, gazteek zein helduek eskaladaz gozatzeko.

Orain, nahiz etorkizunean, hemen egongo gara laguntzeko prest.

Oharra

BARRENA

DEBABARRENA

Martxoaren 19a jai dela eta, aste horretan ez dugu BARRENA aldizkaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia martxoaren 27an kaleratuko dugu.

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,
Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,
Alex Turrillas, Ander Gomez,
Asier Orbea, Dorleta Vidal,
Egoitz Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta,
Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetza eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 11 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.000 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako
UdalaElgoibarko
UdalaErmuko
UdalaMallabiko
UdalaMendaroko
UdalaMutrikuo
UdalaSoraluzeko
Udala

NONDIK NORA

"Badirudi Ukrainako gerra desagertu egin dela albisteetatik, baina hor dago"

VARVARA BONDARCHUK

DEBAN BIZI DEN UKRAINARRA

Errusiaren inbasioa hasi eta gutxira iritsi zen Debara Bondarchuk, Europa erdia zeharkatu ostean

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Ukrainako gerratik ihesi iritsi zen Debara Varvara Bondarchuk (Irpín, Ukraina, 1981), duela lau urte, Errusiaren inbasioa hasi eta gutxira. Gerrako errefuxiatu gisa heldu zen, Daria alabarekin, Natalia Mamula lagunarekin eta haren seme-alabekin –Misha eta Oksana Volosatova–; Europa erdia zeharkatu ondoren iritsi ziren bostak Debara. Gaur-gaurkoz, Bondarchuk jarraitzen du hemen alabarekin, eta, pixkanaka, bizitza berreraikitzen ari da.

Zergatik alde egin behar izan zenuen Ukrainatik?

Nire herrialdea gerraren ondorioz utzi behar izan nuen. Hasieran ez nuen pentsatzen alde egingo nuenik, baina gure herria bonbardatzen hasi zirenean dena aldatu zen. Horrelako egoera batean beldurra sentitzen duzu; batez ere, alabaren segurtasunagatik. Herritik ateratzea ia ezinezkoa zen, baina alkateak emakume eta haurrentzat tren bat antolatzea lortu zuen. Lehen tren hartan ihes egin genuen: alabak, haren lagun batek eta hirurok. Trena jendez gainezka zegoen eta ia ez zegoen mugitzeko lekurik. Presaka irten ginen, ia ezer gabe; soinean generamanearekin eta ezer gutxiarekin.

Debara etortzea zen hasierako asmoa?

Argi nuen Ukrainatik alde egin behar genuela eta ez nuela Polonian geratu nahi, oso gertu zegoelako. Hasieran ez nekien

nora joan; ahalik eta urrunen joan nahi nuen, seguru egoteko. Azkenean, Debara etortzeko arrazoiak Oksana izan zen, nire alabaren laguna.

Nola sortu zen aukera?

Oksanak Debara deitu zuen, Arana-Aizpurua familiaren etxera, eta galdetu zien ea gu guztiok hartuko gintuzten; izan ere, guztira bost lagun izango ginen, haren ama eta neba ere bai. Oksana txikitzen hemen egona zen, Chernobil Elkartearen programaren bidez. Arana-Aizpurua familiak baietz esan zuen, eta beste aukera bat eman ziguten seguru egoteko. Ezezagun batzuek besoak zabalik lagundu ziguten; niretzat, bigarren familia bihurtu dira.

Zenbat iraun zuen bidaia?

Oso luzea izan zen. Lehenik, Poloniara joan ginen, eta han aste bete inguru egon ginen zain, Oksanaren amarekin, nebarekin eta nire amarekin elkartu arte. Nire amak hasieran ez zuen alde egin nahi, baina, bonbardaketak etengabeak zirenez, azkenean, ihes egitea erabaki zuen. Gero, handik nire ama Turkiara joan zen. Eta gu bostok Debaranzko bidaia hasi genuen: Polonian

"Ezezagun batzuek besoak zabalik lagundu ziguten; niretzat bigarren familia bihurtu dira"



Varvara Bondarchuk. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

elkartu ondoren, Alemaniara eta Frantziara joan ginen, eta, azkenik, Debara iritsi ginen.

Zer espero zenuen hemen?

Egia esan, ez nuen ezer espero. Eskertuta nengoen ohe bat izateagatik ere. Parisen, adibidez, geltokian lo egin behar izan genuen. Bi gela ordaintzeko dirua geneukan, baina hotelekoek hiru gela behar genituela esan ziguten, eta, ezin genuenez ordaindu, kale gorrian geratu ginen. Gure egoera azaldu genien, baina, hala ere, kalean utzi gintuzten. Oso gogorra da gaua banku batean pasatzea eta nora joan ez izatea.

Nolako harrera egin zizueten hona iritsi zinetenean?

Arana-Aizpurua familia lehen egunetik arduratu zen guztiaz: dokumentazioaz, eroldaz eta beste hainbat kontuz. Egia esan, hasieran jende askok lagundu nahi zigun, arropa eta dirua eskainiz, baina, batzuetan, horrek deseroso ere sentiarazten ninduen. Eskertuta nago, baina oso gogorra da hori bizi izatea, lehen bizitza normala nuen eta. Askok galdetzen didate ea hemen pozik nagoen, eta, askotan, ez dakit zer erantzun, nire herrialdea

eta nire jendea oraindik sufritzen ari da eta.

Zerk harritu zintuen gehien Debara iristean?

Kalean ikurrinak ikusteak asko harritu ninduen. Balkoi askotan zeuden. Gero, azaldu zidaten hau ez zela Espainia, Euskal Herrian geundela.

Euskararekin zer harreman duzu?

Euskaltegian izena eman nuen, baina ez zen talderik sortu. Eskaintzen dituzten ordutegiak eta nire laneko ordutegia, gainera, ez dira bateragarriak; lanaldi osoa baduzu, ia ezinezkoa da. Uste dut aukera gehiago eskaini beharko lituzketela euskara ikasi nahi dugunontzat.

Zer gustatzen zaizu gehien Debako bizitzatik?

Lana izatea. Ile-apaintzailea naiz. 20 urte baino gehiagoko esperientzia dut, eta, egia esan, nire lana oso gustuko dut. Ez dut

"Egunen batean gerra amaitzen bada ere, bizitza inoiz ez da lehen bezalakoa izango"

eskatu nahi; lan egin nahi dut eta nire soldata irabazi. Lankide oso onak ditut. Janirek eta Maitanek, lana emateaz gain, integratzen lagundu didate, eta askotan gonbidatzen naute lana amaitu ondoren zer bait hartzera. Horrez gain, lagunak eta kuadrilla ere badituzte.

Bi familia etorri zineten Debara.

Denok jarraitzen duzue hemen?

Etorri eta bederatzi hilabetera, laguna Ukrainara itzuli zen, seme-alabekin; nik, ordea, hemen jarraitzen dut, alabarekin.

Zer igartzen duzu gehien faltan Ukrainako bizitzatik?

Batez ere, nire jendea: familia, lagunak, bezeroak... Uste dut egunen batean gerra amaitzen bada ere, bizitza inoiz ez dela lehen bezalakoa izango.

2022an etorri zinen Debara. Uste zenuen hemen hainbeste denbora emango zenuela?

Banekien ukrainar soldaduek ez zutela erraz amore emango, eta gerra luzea izango zela. Horregatik ez nintzen Turkian geratu nire amarekin. Oporretarako herrialde polita da, baina ez nuen egokia ikusten; batez ere, nire alabaren etorkizunagatik. Ez nekien hainbeste denbora emango nuenik hemen, baina, bizitzaren kasualitateengatik, hemen aurkitu dut nire bigarren familia. Debako jendearekin oso eskertuta nago, egindako harreragatik eta eskainitako laguntzagatik; pozik bizi naiz hemen, herriko beste bat bezala.

Lau urte igaro dira gerrak eztanda egin zuenetik. Zer berri jasotzen duzue? Bat dator komunikabideetan ikusten dugunarekin?

Tristuraz, amorruez eta ezintasun handiz bizi dut. Egunero telefonoari begira egoten naiz, nire herrian eta Ukrainan zer gertatzen den jakiteko. Batzuetan, estaldura ona dagoenean, lagunekin edo familiarekin hitz egin dezaket, baina ez da beti posible izaten. Ile-apaindegian bezeroek galdetu izan didate ea egoera hobetu den, baina esaten diet errealitatea, askotan, komunikabideetan agertzen dena baino okerragoa dela. Azken negua oso gogorra izan da: jende askok 20 ordu baino gehiago eman ditu etxean argirik eta berogailurik gabe. Askotan, hori guztia ez da hemen agertzen. Badirudi Ukrainako gerra desagertu egin dela albisteetatik, baina hor dago. Egunero datoz bonbardaketan berriak.



Naia Membrillera, oholtzan. MARDESONORES

"Ederra izango da domekan Herriko Antzokiko oholtzara itzultzea"

NAIA MEMBRILLERA MUSIKARIA

'HhahH: denboraren albuma' obra taularatuko du Naia Membrillerak Herriko Antzokian, berak sortutako Mardesonores konpainiarekin

Ainhoa Andonegi

Goi-mailako Perkusio ikasketak amaitu ondoren, Bartzelonara joan zen Naia Membrillera (Elgoibar, 1992), Soinu-arteari buruzko master bat egitera. Mardesonores konpainia sortu zuen, ametsi bide emateko, eta horren barruan sortu du *HhahH* ikuskizuna. Domekan Herriko Antzokian aurkeztuko du, 16:30ean. **Mardesonores konpainia sortu duzu Bartzelonan, eta Elgoibarren izango zaitugu domekan. Zein da konpainia horren egitekoa?**

Masterrari lotuta sortu nuen konpainia, soinua beste arte diziplina batzuekin nola nahastu nezakeen ikertzeko. Ideia asko neuzkan buruan, eta ideia horiei bide emateko helburuarekin sortu nuen. Ni musikaria naiz, baina konturatzen nintzen musika beste arte batzuetara

zabaltzeko aukera handiak zeudela, eta horretan sakondu nahi nuen. Musika eta perkusioa beste arte diziplina batzuekin nahastu nahi nituen, eta, horretarako, master bat egitera joan nintzen Bartzelonara. Zortzi bat urte egin ditut Bartzelonan, eta orain, Ebroko deltan bizi naiz. **HhahH: denboraren albuma lana sortu duzu. Ahoskatzeko ere zaila den izena jarri diozu obrari. Zertan datza?**

Soinua ikertzen aritzen naiz, baina musika edo soinua sortzetik harago joan naiz kasu honetan. Soinua ertzetatik landu dut, eta hitz hori onomatopeia bat da. Hasperen baten soinua da, azken batean, edo, hobeto esanda, bi hasperenen soinua, eta horri esker palindromo bat sortu dut; hau da, aurretik zein atzetik, berdin irakurtzen den

hitza da. Sakon pentsatutako izenburua da. Bi hasperen batu ditut izenburuan, nire ustez bizitza bi hasperenen barruan gertatzen delako; jaiotzean egiten dugu lehenengoa, eta hiltzean azkena. Bi hasperen horien artean gertatzen dira gure bizitzako gauza guztiak; gure bizitzako bidaia, azken batean. Hortaz, hitz hori gure bizitza soinu batekin adierazteko modua da. Niri polita iruditzen zitzaidan hitz horren atzean dagoen muin poetikoa izenburura eramatea. Badakit azalpenik eman gabe jendearentzako zaila izan daitekeela ulertzea, baina, bakoitzak nahi edo ahal duen moduan ahoskatuta ere, hitz edo soinu horrek hor egon behar zuen.

Izenburua azalduta, zein da obraren muina?

Tailer bat izango da agertokia; aspalditik itxita dagoen tailer bat. Obrako protagonista tailer horretan sartuko da, eta dena hankaz gora dagoela ikusiko du. Haren egitekoa izango da tailer hori antolatzea. Zeregin horretan, gauzak aurkitzen joango da, eta gauza horiei esker bizipen asko deskubrituko ditu; izan ere, tailer horrek istorio asko ezkutatzen ditu. Han lan egiten zuen pertsona ezagutzeko aukera izango du, tailerra antolatzen doan heinean. Baina pertsona hori nor zen eta protagonista-rekin zein harreman zeukan jakiteko, obra ikustera joan beharko da.

Eta protagonista hori zu zeu zara; beraz, musikari izateaz aparte, antzezlea ere bazara. Noiztik diharduzu antzerkian?

Elgoibarren bizi nintzenean izan nuen aukera antzerkiren baten parte hartzeko, musikari, eta Bartzelonara iritsi nintzenean umeen antzezlari baterako musika eta antzerkia uztartzeko jende bila ari zirela jakin nuen. Nik egin nahi nuena hori zen, hain justu ere, eta izena eman nuen castingean. Hartu egin ninduten, eta dagoeneko zazpi urte daramatzat horrelako lanetan. Musika egiteaz gain, antzeztu ere egiten dut. Itzal-antzerkia ere asko gustatzen zait, eta txotxongiloen munduan ere formatu naiz. Objektu-antzerkia oso interesgarria iruditzen zait. Hainbat tailer egin ditut antzerkiari lotuta ere, nire irudimenean neuzkan ideia guztiak kanporatu ahal izateko.

Zein motatako publikoarentzako obra dela esango zenuke?

Familia-antzerki bat da, edonorentzako modukoa, baina nik gomendatuko nuke 7 urtetik gorakoentzat. Dena dela, umeek zein helduek gozatzeko pentsatuta dago. Ez da obra infantilizatu bat; estimulu asko dituen lana da, gauza asko gertatzen dira, oso bisuala da eta umeen atentzioa bereganatzeko prestatuta dago. Aldi berean, istorio poetiko bat dauka, gogoetarako aukera ematen du eta helduek ere nork bere irakurketa egiteko aukera izaten dute. Denboran eta oroitzenaren oinarritutako bidaia bat da, eta oholtzan ikusten dutena nork berera estrapolatzea oso erraza da. Hori da ikuskizunak eskaintzen duen aukera politena, nire ustez. Oso testu gutxi dauka, eta nik ez dut oholtzan hitz egingo, entzuten

den ahotsa grabatuta egongo da. Hizkuntza bisuala dauka obrak, eta soinu-hizkuntzan oinarrituta dago.

Musikari moduan ezagutu zintugun, eta orain antzezle moduan zatoz. Artearen munduan urratu duzu bidea.

Bidean zehar zalantza handiak izan ditut, ez pentsa! Musikenen sartu aurretik Arkitektura ikasten hasi nintzen, hori ere izugarri gustatzen zaidalako. Borroka izan nuen zientziaren eta artearen artean, eta gaur egun ere zientzia asko interesatzen zait. Azkenean, arte mundura bideratu nuen nire bizitza, baina Arkitekturan ikasitakoa ere praktikan jartzen dut artean; izan ere, obraren eszenografia guztia nik egin dut, eta horretarako oso baliagarria izan da nire Arkitektura alorra. Eskulanak egitea ere asko gustatzen zait, eta horrek ere lagundu dit. Obra horretan nire gustuko diziplina guztiak uztartu ditut, nolabait esateko. Kasu honetan, nire perkusionista alorra ikusiko da gutxien. Soinua oso presente egongo da, eta igartzen da perkusionista naizela, baina obran zuzenean ez da ikusiko. Perkusioak musikagintzan eremu oso zabala hartzen du, infinitua da, eta irudimenari ez dio mugarik jartzen. Horrek erakarrirri ninduen, bereziki.

Zer izango da, zuzetatzat, Herriko Antzokian antzezteak?

Oso ederra izango da Elgoibarrera itzultzea; etxera, hainbeste ezagutzen dudana Herriko Antzokira. Karga emozional handia dauka horrek guztiak, baina, aldi berean, polita da. Zenbat buelta ematen dituen bizitzak! Ezagutzen nauen jendearekin bidaia hau partekatu ahal izatea oso hunkigarria da. Ilusioz beterik nago iganderako.

"Familia-antzerkia da, eta umeek zein helduek gozatzeko pentsatuta dago obra"

"Bi hasperenen soinua da izenburua, bizitza bi hasperenen arteko bidaia delako"

Emakumeek industrian izan duten presentzia hausnartu dute Danobatgroupen

M-8aren harira egin zuten saioa, eta Elgoibarko enpresetako emakumeek ere hartu zuten parte

Danobatgroup taldeak fabrikazio aurreratuan diharduten emakume langileak batu zituen, Martxoaren 8aren harira, eta emakumeek industrian izan duten presentzia hausnartzeko mahai-ingurua egin zuten. Olatz Astigarraga (Danobat), Isabel Oyarzabal (Goimek), Nerea Barrenetxea (Danobatgroup), Naroa de Luis (Soraluce) eta Irati Sanchez (Ideko)

izan ziren hizlariak, eta Iban Garate aurkezle azkoitiarrak egin zituen dinamizatzaile lanak. Lantalde globalean emakumeen presentzia% 15,5 den arren, erabaki-organoetan duten presentzia handiagoa dela adierazi zuten -%16,3-, eta esan zuten horrek erakusten duela erakundearen norabidean emakumeek rol aktiboa dutela.



DANOBATGROUP



MARTXOAREN 8A

Borroka feministaren aldarriek hartu dituzte Elgoibarko kaleak

Joan den domekan izan zen Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta herriko emakumeek bat eginda kalera eraman zuten aldarri feminista. Ulu-ka batukadaren doinuek hartu zuten Kalegoen plaza, eta, elkarretaratzearen ondoren, manifestazioa egin zuten. Ozen oihukatu zituzten berdintasunaren aldeko leloak, eta amaieran talde-argazkia egin zuten. Kolore morea dauka martxoak Elgoibarren, eta eragileek hilabete osorako ekintzak antolatu dituzte, M-8aren harira. Datozen egunetako ekintzak agendan dau- (30-31. orriak).



Talde-argazkia, Kalegoen plazan. MIKEL ASKASIBAR

Martxoaren 17ko mobilizazioekin bat egin du Duintasunak

Elgoibarko jubilatuen eta pentsiodunen Duintasuna taldeak bat egin du ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek martxoaren 17rako egin duten greba deialdiarekin, eta bere egin ditu sindikatuen aldarrikapenak. 1.500 euroko gutxiene-ko soldata bermatzeko eskatu dute, besteak beste, eta gogoratu dute 145.000 sinadura baino gehiago batu direla horren alde. Hortaz, Duintasunak M-17ko mobilizazioetan parte hartzera deitu ditu herritarrak. Eibarren egingo dute manifestazioa, 12:30ean, eta Elgoibarkoa 18:30ean izango da, Kalegoen plazan hasita.



Manifestazioaren une bat. M.A.

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH SMS4HTW16E
ONTZI-GARBIGAILUA**

499 €

- 13 Zerbitzu
- Lehortzeko funtzio extra
- Home Connect aplikazioa
- 3 mailatan antolatutako saskiak



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

NIRE USTEZ

Gaitzak erdiz erdi



ENEKO ETXANIZ
IKASLEA

Bi aste ere ez dira igaro Goya sarien gala ospatu zenetik. Pozgarri zait euskarazko zein espainolezko ekoizpenek ordezkatzan duten euskal zinema delako hori beste behin ere lehen lerroan ikustea. Baina, Koldo Almandoz zenbaitetan entzun izan diogun bezala, ez dakit ez ote diegun kasu gehiegi egiten Espainiako Zinema Akademiak banatzen dituen sarioi.

Eztabaida hau ez da nobedade beste hainbat alorretan ere. Baina irudipena dut esparru zaurgarriaren iristen direla

urrunen. Besteak beste, Espainiako errege maiestatearen futbol kopako finalerdiak ere jokatu baitira iragan astean. Zeinaren oihartzuna esparru honetan gaiarekiko daukagun pasibotasunaren lekuko izan den –beste behin–.

Uste dut ezagun ditugula gizonezkoen futbolak sustatzen eta hedatzen dituen ereduak eta honen eraginak. Ez, ordea, gisa

Ez dago Mintxetako zelaira igo eta atletismo pistari itzuli batzuk ematea bezalakorik

honetako lehiaketan testuinguruak hizkuntza eta herri ikuspegietan eragiten duen kaltea. Baina, hori estaltze aldera, Txoria txori bezalako kantak bihurtzen ditugu futbol estadioetako soinu banda. Harrotasunaren izenean, gizontasunari bide emanez.

Ez dago noizean behin Mintxetako zelaira igo eta atletismo pistari itzuli batzuk ematea bezalakorik, gizonezkoen futbolaren baitan gazteenengandik hasita nabari daitezkeen harremantzeko moduez jabetzeko. Baina tira, horien artean astebete barru Korrikako lehen lerroak hartu nahian ibiliko denik baldin bada, "gaitz erdi", pentsatu beharko dugu.

NIRE USTEZ

Lilipen garaia



SAIOA RODRIGUEZ
ARGAZKILARIA



Lilipa garaia iritsi da; gure basoak horiz jantzi dira, udaberriari hasiera emateko eta gure arimak alaitzeko.



SEMAFOROA

Zuloa dago aparkalekuan



"Urazandi auzoko goiko aldeko aparkalekuan sekulako zuloa dago, eta, izkin egiten saiatu arren, askotan ezinezkoa izaten da. Errubera zuloan sartzen da gehienetan, eta egunen batean zulatu egingo zaigu. Dagokionari eskatu nahi nioke zulo hori konpontzeko, lehenbailehen. Eskerrik asko".

Teklak falta zaizkio makinari



"Bernardo Ezenarro kalean dagoen aparkatzeko makinari teklak falta zaizkio, eta, ondorioz, tiketa ateratzeko orduan arazoak sortzen dira. Behin baino gehiagotan tokatu zait letra galduen bila ikustea jendea. Aspaldian dago horrela, eta iruditzen zait badela hori konpontzeko ordua".

Autoak azkarregi ibiltzen dira



"Autoak azkarregi ibiltzen dira herrigunean, eta une arriskutsuak bizi izaten ditugu askotan. Auzoetan espaloiak daude, baina erdigunean ez, eta autoen bide beretik ibiltzen gara oinezkoak. Orain dela urte batzuk, istripu larria gertatu zen Maalan, eta, hala ere, badirudi ez dugula ezer ikasi. Gidariei oinezkoekiko errespetua eskatu nahi diet".

Olaizagako rokodromoa hobetzeko lanak hasiko dituzte

10.000 euroko aurrekontua izango dute hobekuntza-lanok, eta hiru fasetan egingo dituzte

Ainhoa Andonegi
Elgoibarko Udalak Olaizagako rokodromoa hobetzeko lanak hasi ditu, eta, ondo bidean, Aste Santu ondorenerako amaituta egotea aurreikusi dute. Lanen eraginez, hiru egunetan itxita egongo da rokodromoaren zati bat: gaur, martxoaren 27an eta apirilaren 17an, hain zuzen.

Hiru fase
Lehen fasea gaur hasi dute, eta fase horretan bide berriak ekipatuko dituzte rokodromoan,

presak eta bolumen berriak erabiliz; bigarren fasea martxoaren 27an hasiko dute, eta, desmuntatutako presak garbitu ondoren, rokodromoko bigarren bloke bat ekipatuko dute; azken fasea apirilaren 17an hasiko dute. Ibilbide berriekin ekipatuko dute rokodromoa hirugarren fase horretan. Hobekuntza-lanak 10.000 euroko aurrekontua izango dute. Udalak aditzera eman duenez, rokodromoko erabiltzaileek egin dizkieten eskaerei eta proposamenei erantzuteko hasi dituzte



Rokodromoa. ASIER ORBEA

lanak. Iradokizun horiek aztertzeke lantalde bat osatu dute: kiroldegiko ohiko eskalatzailer batzuk, eskalada ikastaroetako monitorea eta Dolmen Holds enpresako ordezkariak; izan ere, rokodromoaren diseinuan eta eki-

pamenduan espezializatutako enpresa da Dolmen Holds. Rokodromoan egin beharreko hobekuntza lanez gainera, boulder-gunea hobetzeko aukerak ere aztertzen ari direla aurreratu dute arduradunek.

Amildegiko taldearen kontzertua, bihar, Gaztetxean

Elgoibarko Amildegiko taldeak kontzertua emango du bihar, Elgoibarko Suteigaxa Gaztetxean. Gaizka Urangak (bateria), Julen Zubizarretak (gitarra), Unax Esnaolak (ahotsa), Markel Urangak (gitarra) eta Gorka Irisarrik (baxua) osatzen dute taldea, eta punk rock estiloko musika egingo dute. Elgoibarko Gazte Asanbladak 40 urte bete ditu aurten, eta ospakizun ekitaldien barruan sartu dute biharko kontzertua. Amildegirekin batera, Hell Beer Boys taldeak ere joko du. 20:00etan zabalduko dituzte Gaztetxeko ateak, eta kontzertua 21:30ean hasiko da. Sarrerak 5 euro balio ditu.



AMILDEGI

Irimora familia irteera, domekan, Morkaikorekin

Irimora irteera antolatu du domekarako Morkaiko mendizale elkarteak, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean. 09:30ean batuko dira, Mintxetan, eta Santa Barbara ermitaraino joango dira, autoz. 6,5 kilometroko ibilbide zirkularra egingo dute, 425 metroko desnibel positiboarekin, eta aldaparik gogorrenak hasieran izango dituztela jakinarazi dute. Antolatzaileek gogorarazi dute umeak ezingo direla bakarrik joan. Eguraldiaren arabera, irteerak aldaketak izan ditzake.

Bikustik, gaur iluntzean, Derry tabernan



Bikustik, iazko EME egunean. A.A.

Patxi Zabaleta eta Jon Gurru-txaga musikari elgoibartarrek osatzen duten Bikustik taldeak kontzertua emango du gaur gauean Elgoibarren. Musika talde ezagunen abestien bertsioak egingo dituzte, modu akustikoan. Derry tabernan izango da kontzertua, 21:30ean hasita.

'Katana' bakarrikzeta, domeka eguerdian, Aita Agirren



Ana Goitia. SAREA

Ana Goitia kazetari eta ETBko telebista-aurkezle lekeitiarrak *Katana* bakarrikzeta aurkeztuko du domekan, Aita Agirre kulturgunean. Ana Goitia handia da zentzu guztietan, eta kontatzeko modua ere halakoxea dauka; intentsoa. Ohikoak diren gauzetan jarriko du arreta oraingoan, bizitzan gertatzen zaizkion gauza horietan. Musika eta marketing-a, sold out-aren aroa, kontzertuak familian gozatzeko moda, matxismoa edota lodifobia izango ditu hizpide, besteak beste, eta hori guztia umorez jantzita, jakina. *Katana* izan da Goitiaren estreinako bakarrikzeta, eta lan honekin entzuleak gogetara bideratu nahi ditu, baina umoretik. Gordin kontatuko ditu egoerak, eta kasu batzuetan ikusleak ere identifikatuta sentituko dira. 12:30ean izango da, doan, eta euskaraz. Hilabete morearen egitarauaren barruan antolatu dute ekitaldia.

Pilotari txikiak, baina ikuskizun handia, Pilota Egunean

Pilota Eguna ospatu zuen joan den zapatuan Elgoibar Ikastolako komunitateak. LH-1 eta DBH-2 arteko eskola-umeek jokatu zituzten finalak, eta haietako askok sekulako ikuskizuna eman zuten, gainera. Sari banaketaren ondoren, gurasoek eta irakasleek ere izan zuten pilotan egiteko aukera. Harmailak beteta, giro ezin hobean joan zen goiza.



AINHOA ANDONEGI

Aspaldiko komun publikoen arrastoak bistaratu dira San Frantzisko iturri azpian

Ainhoa Andonegi

Merkatu plaza azpiko transformadore elektrikoa lekuz aldatzeko obrek lur azpiko sekretuak azaleratu dituzte. Transformadorea lurpean sartzeko zuloa egin dute San Frantzisko iturri azpian, eta asfalto zulatutenean garai bateko azulejo zuriak bistaratu dira. Obren ingurutik pasatu diren herritarren arreta bereganatu du gertakariak, baina adin batetik aurrerakoenztzat ez da sorpresarik egon; izan ere, gogoan dute garai batean komun publikoak egon zirela leku hartan.

Gasolindegia ere bai

Liburutegian gordeta dute Labordeta Fotostudio zenak ateratako argazkia. Komun publikoetarako sarrera ikus daiteke zuri-beltzeko argazkian, eta atzeko planoan San Frantzisko iturria, lehenagoko Merkatu plaza eta Altzolarren dorretxea. Bi sarbide zituzten komunek,



Komun publiko zaharrak eta egungo irudia.



Artxiboko irudi bat. LIBURUTEGIA

gizonezkoentzat bata eta emakumezkoentzat bestea. Dutxak ere bazituztela aipatu dute batzuek. Komunez gogoratzean,

Kalebarrenen -Nafarroa plaza izena zuen lehenago- zegoen gasolindegia ere ekarri dute gogora edadetuenek.

Basografiari buruzko hitzaldiak hasiko du 'Gure Natura Ezagutuz' egitasmoa, martxoaren 26an

Ainhoa Andonegi

2026rako *Gure Natura Ezagutuz* egitasmoaren programa aurkeztu dute aste honetan Morkaiko Mendizale Elkartek, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak eta Elgoibarko Baso Biziak elkartek. Zazpi jarduera antolatuko dituzte martxotik azarora bitartean, eta martxoaren 26rako iragarri dute aurrenekoa: basografiari buruzko hitzaldia.

Zazpi ekintza

Antolatzaileek ohartarazi dute ekintzen datak gerturatu ahal emango dutela *Gure Natura Ezagutuz* ekimeneko jardueren informazio zehatzagoa, baina dagoeneko aurreratu dituzte ekintza nagusiak, eta datak, interesatuek agendan gorde ditzaten: esan bezala, hilaren 26an hasiko da egitasmoa, eta hurrengo bi ekitaldiak apirilaren egingo dituzte: apirilaren 12an Deba aldera joango dira, eta

Arbil mendiko koban espeleologia praktikatu dute; apirilaren 17rako, berriz, izarrei begira orientatzeko saioa prestatu dute. Maiatzaren 17an urmaela prestatuko dute Lizagasar sagartokian, eta ekainaren 7an, berriz, Arantzazura egingo dute irteera, tximeletak

ezagutzeko. Etenaldia egingo dute gero, eta urrian ekingo diote berriz egitasmoari: urriaren 4an landa-koaderno sortzeko tailerra egingo dute. Eta, azkenik, azaroaren 8an mendi irteera gidatua egingo dute, hemengo basoak eta paisaiak ezagutzeko.



Egitasmoaren sustatzaileak. GNE

Etxebizitzari buruzko hitzaldia antolatu dute, gazteentzat

Martxoaren 25ean izango da, eta interesatuek izena eman beharko dute hilaren 18rako

A.A.

Gazteengan kezka handienetakoa sortzen duen gaia da etxebizitzarena, eta, horren jakitun, etxebizitzari buruzko hitzaldia antolatu du Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta GAZ zerbitzuarekin lankidetzan. Etxebizitzarako sarbideari buruzko informazio erabilgarria eta praktikoa eskainiko dute, besteak beste, emantzipazioarako dituzten aukerak ere azalduko dizkiete gazteei, eta haien zalantzak nahiz kezkak argitzeko ere baliatuko dute saioa.

zioa ulergarria izan dadin ahalik eta jende gehienarenztzat. Jarduera irekia eta doakoa izango da, baina aurrez izena ematea beharrezkoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Izena emateko, Gazteria Sailera jo daiteke (943 74 10 50) edo, bestela, hemen beheko QR kodea eskaneatuta ere egin daiteke. Martxoaren 18a izango da izena emateko azken eguna.



Izen-ematea, hilaren 18ra arte

Martxoaren 25ean izango da saioa, 18:00etan, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hitzaldia euskaraz izango bada ere, ele bietan emango dute idatzizko materiala, informa-

Azkaraterako errepidea egonkortzeko proiektua onartu du Aldundiak



Azkarateko errepide zaharra. ASIER ORBEA

A.A.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak iragarri du Azkarateko GI-3321 errepidearen bi zati egonkortzeko proiektua onartu duela. Azkarateko errepide zaharrean egingo dituzte lanak, Elgoibar alde- ra; zehazki, 2+100 eta 3+100 kilometro-puntuaren artean: "Puntu batzuetan lurra hondoratu eta mugitu egin da, eta, beraz, beharrezkoa da lanak egitea, errepide-

dearen egonkortasuna bermatzeko eta zirkulazioaren segurtasuna indartzeko", adierazi du Iruñe Berasaluze Aldundiko bozeramaileak.

726.440 euroko inbertsioa egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta, obrak noiz hasiko diren zehaztu ez badu ere, aurreratu du lau hilabete iraungo dutela. Egonkortze lanen ondoren, errodadura geruza berri bat ezarriko dute errepide osoan.

Miniaturazko Motxaila Herria aurkeztuko dute gaur, oso-osoan eskuz egina

Inguru gertuan batutako adaxka, pinaburu, ezkur, orbel eta material birziklatua erabilia sortu dute bereziki maketa Amagoia Basurtok eta Egoitz Horrillok, eta eskolan jarri dute ikusgai. Gaur, 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da

Ainara Argoitia MENDARO
Aulki batean eseri eta orduak eman daitezke Motxaila Herriaren maketari begira. Fantasiako ipuinetako herri sorgindu baten traza du lehen begi kolpean, baina Mendaro herriaren bereizgarri diren hainbat elementu ere badaude bertan; nagusiki, ura, erreka eta ur-jauzi itxuran. Mendaron bertan eta Debako hondartzan batutako material naturalak eta beste hainbat material birziklatu erabili dituzte maketa sortzeko, kontserba-latak, fruta kaxak eta abar, eta detaile txikiak ere mimoz daude zainduta.

Sormen handia eta ordu askotako inurri-lana dago han, eta txikiak ere jabetu dira horretaz. Maketaren ondoan Kilimona dago, Amagoia Basurtok berak duela lau urte Motxaila Egunerako sortutako irudia, eta hari begira hipnotizatuta daude eskola-umeak. Ikusi dutenetik gehien gustatu zaiena marrazteko eskatu die irakasleak, eta aukeratu ezinda dabilta, hara-hona, orri zuria eskuetan dutela. "Hain da polita.... Polita ez, oso-oso polita da", bota du 10 bat urteko mutiko batek. Gelara korrika doan beste ume batek,

berriz, geldialdia egin du maketa aurrean. Aho-zabalik begiratu die bi artistei, eta bostekoa eman die gero, egindakoagatik zoriondu ostean.

Ekainera arte, ikastolan
Sormenerako duten trebeziagatik ezagunak dira Basurto eta Horrillo Mendaron, azkeneko azoketan ere irten direlako kalera beren eskulanak erakustera, baina aitortu dute eurak ere harritu direla sortu dutenaz, pieza guztiak elkarren ondoan jarri eta begiratzeko tartea hartu dutenean. Urtebetetik gora eman dute maketan lanean, nork bere aldetik, eta joan den zapatuan eraman zituzten ikastolara pieza guztiak, gaur dutelako aurkeztekoa, Motxaila Egunaren bezpera; 17:00etatik 20:00etara egongo da bisitatzeko aukera. "Azelako hustua hartu duen nire etxeak!", bota du Basurtok. Mendaro ikastolako zuzendaritzak laga die erakusteko lekua, eta ekainera bitartean hantxe izango dute ikusgai maketa: "Oso eskertuta gaude zuzendaritzakoekin. Kilimona aurkeztera etorri ginen ikastolara Motxaila Elkartetik, irudipena geneukalako Motxaila Eguneako bertso



Egoitz Horrillo eta Amagoia Basurto maketako pieza batzuk eskuan dituztela. AINARA ARGOITIA

saiora joan izan direnek bakarrik ezagutzen zutela, eta esku-zabalik hartu gintuzten. Ekainera bitartean izendatuko ditugu ziur aski egun batzuk jendea ikustera etor dadin, eta gero, beste norabait eramango dugu, ziurrenik, botatzeko ez gaude eta".

Elgoibarko Gabon zahar feria egun batez parrokiako jaiotza ikustera joan zirenean bururatu zitzaizen Motxaila Herria sortzea. "Nik baneukan etxe bat sortuta eta Amagoiak ere egina zeukan beste bat, eta esan genuen: etxeak egiteko gai bagara, zergatik ez dugu herri bat sortuko". Pentsatu eta egin. Saskia hartu eta minak arintzeko egunero egiten zituen ibilietan adaxkak, ezkurak, pinaburuak batzeari ekin zion Basurtok. Eta Horrillo ere buru-belarri jarri zen sortzera, Gabon inguruan. "Niretzat terapia modukoa izan da hau. Minez nagoen egunetan burua beste zerbaitetan entretenitzeko aukera eman dit honek". Konta ezin beste ordu sartu dituzte txiri-txiri lanean, eta Gabon bueltan Mari Domingiren ipuina sortu zuten Instagramerako, ordura arte sortuak zituzten piezak ingurune naturaletara eraman eta bideoa grabatuta. Akuilurik ez



Motxaila Herriko sagardotegia. Gertu daude mahaia, eta txuleta, parrillan. A.A.



Motxaila Herriko errota, ateburuan eguzki-lorea duela. A.A.

dute behar sormena martxan jartzeko, eta erakutsi dute. Orain, atsedeen pixka bat hartu eta ipuin bat idatzi nahiko lukeela aitortu

du Basurtok, eta maketa osatzen joateko pieza berriak sortzeko asmoa du Horrillok; izan ere, tandem ona egiten dute.

'Zerua, motxailen aterpe' saioarekin hasiko dute Motxaila asteburua

A.A. MENDARO
Punta-puntako lau bertsolari arituko dira gaur San Agustin kulturgunean kantuan, Motxaila Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako *Zerua, motxailen aterpe* bertso-saioan: Alaia Martin, Andoni Egaña,

Amets Arzallus eta Julio Soto. 22:00etan hasiko da saioa, eta sarrerak salgai daude oraindik. Xeber Loiola mendaroarrak egingo ditu gai-jartzaile lanak, eta herriko bertso-eskolako gaztetxoek ere parte hartuko dute saioan.

Aitzbeltzera irteera
Aperitibo gozoa izango da gaurkoa, egun handia biharkoa izango baita. Ohikoa den legez, Aitzbeltz kobazulora egingo duten mendi-irteerarekin hasiko dute Motxaila Eguna. Gaztetxetik abiatuko dira, 09:00etan, eta 11:00 alderako espero dute gora iristea. Han, kobazulo sarreran, beren talentua erakutsiko dute bertaratutakoek. Musika, olerki

emanaldiak, irakurketa musikatua... denetarik izan ohi da han, eta hogeigarren edizio honetan ere hala izango dela dute iragarrita. Aitzbeltzen mokadua egin, eta beherako bidea hartuko dute guztiek. Mendian izan direnek frontoiko dutsak erabili ahal izango dituzte, freskatu bat hartu eta arropaz aldatzeko, ondoren Gaztetxean bazkaltzeko elkartuko direlako haietako asko,

aurrez txartela hartua dutenak –gaur da azken eguna–. Bazkalondan, Elixabet Etxandi, Txaber Altube eta Aitor Tatiegi bertsolarien saioaz gozatu ahal izango dute, Oñatiko Xaukena elektrotarangakoekin kalejiran irten aurretik; 18:30ean izango da hori, eta gauerako kontzertuak lotu dituzte: Aramu eta Inguma taldeak arituko dira Gaztetxean, 22:30ean hasita.

Gonzalo del Valek kontzertua emango du martxoaren 20an

Javi Callen kontrabaxu jotzailearekin eta Raynald Colom tronpeta jotzailearekin arituko da San Agustin aretoan

Ainara Argoitia MENDARO

Gonzalo del Val bateria jotzailearen kontzertua antolatu du Mesa 7 elkarteak martxoaren 20rako, Udalararen, Gararoken eta Uztargi tabernakoen laguntzarekin. San Agustinen izango da, 21:30ean, eta sarrerak Uztargin salduko dituzte, 15 euroan. Javi Callen kontrabaxu jotzaile eta Raynald Colom tronpeta jotzaile lagun hartuta etorriko da Mendarora.

Gonzalo del Val egungo jazz-eszenako bateria-jotzaile baloratuenetako bat da. Talentu handiko

musikariekin aritu izan da jotzen: Dave Liebman, Stephane Belmondo, Marco Mezquida, Marc Miralta, Jon Robles, Albert Bover, David Mengual, Victor de Diego, Jordi Bonell, Horacio Fumero, Dani Perez... Publikoaren eta kritikaren gorespina jaso du. Aipatzekoak dira *SoJazz* aldizkari frantsesak haren diskoaz esan zituenak, adibidez. Europako talentu gazteen atalean aipatu zuen, Espainiako eszena garaikidearen ordezkari onenetako baten gisan. Haren bigarren disko-lanari, berriz,



Gonzalo del Val. ARTISTAREN WEBGUNE OFIZIALETIK HARTUTAKOA

azala eskaini zion *All About Jazz* aldizkariak. Bi aipamen baino ez dira horiek, Del Valen lanek zabalkunde handia izan dute eta. Hiru urtez Dublinen garatu zuen lan diskografikoa, munduko saxofoi jotzaile ezagunenetako batetik: Dave Liebman. New Yorkeko Manhattan musika eskola entzutetsuan ikasteko beka esku-

ratu zuen, eta John Riley izan zuen han irakasle. 2019an, berriz, Bartzelonako Lizeoa Goi Kontserbatorioko Jazz eta Musika Modernoko Departamentuko buru izendatu zuten. Talentua eta eskarmentua, bietatik du Del Valek, eta haren ibilbidearen zertzelada batzuk baino ez dira hemen jasotakoak.

Herriko hiru txirrindulari lehiatuko dira Mendaro Hiria Saria lasterketan

A.A. MENDARO

Mendaro Herria Saria lasterketa jokatu dute bihar kadete mailako txirrindulariek. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatu du lasterketa eta aurtengoa bosgarren edizioa izango da. 16:00etan abiatuko da trope-la, Herriko Enparantzatik, eta Bergarako Labe Garaietarainoko bidea osatu beharko dute, 48 bat kilometro guztira. Irteera-puntu bertan izango du helmuga lasterketak, eta, ondo bidean, 17:12 alderako espero dituzte txirrindulariak.

Herrikoak bertakoak, hiru

Lasterketan Debarrenen txirrindulariek ere parte hartuko

dute. Atzo, osteguna, zuten itxeko izena emateko epea, eta antolatzaileak ez ziren ausartu bihar irteeran eskualdeko zenbat izango diren zehaztera, baina azpimarratu zuten Mendaroko hiru txirrindulari, behintzat, parte hartzekoak direla, Elgoibarko Lagun Taldekoak hirurak (Besa-Gemini): Oier Arriola, Zugatz Iraolagoitia eta Enaitz Iraolagoitia. Txirrindularitzarako afizioa sortzea du hasieratik helburu Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, eta elkartearen presidentea Ander Zulaikak herritarrei dei egin die harrobiko txirrindulariak animatzera joan daitezela. Coviran denda parean hasi eta amaituko da lasterketa.



Zugatz Iraolagoitia, Enaitz Iraolagoitia eta Oier Arriola A. ARGOTIA

Hesia diskurtso antifeministari



ARKAITZ URANGA

Mundu berdinazaleago baten alde egiteko elkartu ziren domekan Mendaron. "Diskurtso erreakzionario eta misoginoetan adierazten den mugimendu antifeminista baten goraldian gaude. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea dute helburu. Eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu", zabaldu zuen Udalak.

OHARRAK

Odol emateak

Odol ateratzeak gaur, ikastolan, 17:00etatik 21:00etara. Izena emateko: 632 40 37 95.

Garizumako hitzaldiak Azpilgoetako parrokiaren

Garizumarako hitzaldi zikloa antolatu dute Parrokiakoek. Hona, eskaintza: gaur, martxoak 13, 21:00etan, eta bihar, martxoak 14, 11:00etan, *El rollo* izenburuko hitzaldia izango dute; martxoaren 20an (21:00) eta martxoaren 21ean (11:00),

berriz, *Regreso al futuro* izenburukoa. Saio guztiak Azpilgoetako elizan izango dira.

'Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa antzezlan' hilaren 22an

Itziar Saenz de Ojer Martinez Andereño Rosita da antzezlanean, bi urtez behin 1980. urtean lehenengo Korrikarako erositako txandala janzten duena. Eta esperientziak ematen dion ja-kinduriatik arituko da Rosita Korrikaren izaeraren eta historiaren, umoretik.

Herri-kirol eguna eta irteera arkeologikoa asteburuan

A. Argoitia MENDARO

Herri-kirol topaketa eta herriko ondare arkeologikoa ezagutzeko irteera antolatu ditu Arno guraso elkarteak astebururako, Udalararekin eta beste zenbait eragilarekin lankidetzan. Bihar, zapatua, hilak 14, herri-kirolak hainbat modalitate probatzeko aukera izango dute Sorailuzeko, Mutrikuko eta Mendaroko eskola-umeek. LH-3 eta LH-6 arteko ikasleentzako proposamena da, izatez, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da eskola kirolean izena emanda egotea. 10:30ean hasiko da topaketa, eta, 12:30ak bitartean, txinga eroaten, lokotx batzen, zakuak eramaten eta sokatiran arituko dira haurrak, Herriko Enparantzan. Bukaeran mokadua ere egingo dute. Haietazko topaketa izan ezta ere, Arnokoek txoko berezi bat ere prestatuko dute HH eta LH-2 arteko eskola-umeentzat, iaz egin zuten moduan.

Irteera, martxoaren 15ean

Iganderako, berriz, Mendaroko aberastasun arkeologikoa eta geologikoa ezagutzeko irteera antolatu dute Arnokoek, Suhari elkartearekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Alvaro Arrizabalaga eta Maria Jose Iriarte EHuko arkeologekin batera. 10:00etan elkartuko dira, Presapen, eta Aranerrek aurrera egingo dute, oinez, bidean geldialdiak eginez, arkeologo azalpenak entzuteko.



lazio topaketaren irudi bat. A. ARGOTIA

Sagardo Egunaren hamabigarren aldia egingo dute bihar, martxoak 14

1.080 sagardo botila salgai jarriko dituzte plazan, 12:30ean hasita

Dorleta Vidal

Bihar, larunbata, Sagardo Eguna egingo dute Orbe Kardinala plazan, eta hamalau sagardotegitako dastatzeko aukera egongo da, 12:30etik 14:30era bitartean goizean eta 17:30etik 19:30era arratsaldean. Urtero bezala, Ermua BHIko batxilergoko bigarren mailako ikasleek hartu dute euren gain antolaketa-lana, ikasbidaiarako dirua batzeko asmoz.

Gazte horiek 950 edalontzi jarriko dituzte salgai, 7 eurotan-iazko prezio bera-, eta horren truke erosleek nahi beste sagardo edan ahal izango dute, eta pintxo bana eskuratu ere bai. Guztira, 1.080 sagardo botila zabalduko dituzte aurten ere, eta, iaz bezala, guztiak hustea espero dute antolatzaileek.

Sagardoa dastatzeaz gain, beselako ekintzez gozatzeko aukera ere egongo da. Hala, 19:30ean karro-poteoa egingo dute herriko taberna laguntzaileen inguruan, eta 22:00etan erromeria egingo du Sugaar taldeak, plazan. Gainera, giroa berotzeko, karro-poteoa egingo dute gaur ere, ostirala, 19:30ean hasita.

Neskak, talde aktiboan

Antolatzaileek azaldu dutenez, askotariko lanak egin behar dira herri guztiari irekita dagoen egitasmo hori antolatzeko; besteak beste, sagardotegira deitu eskaerak egiteko, sagardoaren bila joan, edalontziak kudeatu, komunikazioa zabaldu hainbat euskarritan, kontzertua antolatu eta Ermuan bertan egiten diren eskaerak kudeatu. Lan horietarako guztietarako, 34 lagunek lantaldea osatu dute institutuko ikasleek: horietatik hamasei neskak dira eta hamazortzi, mutilak.

Hala ere, zuzendaritza taldean dauden sei kideak neskak dira: Naiara Perez, Leire Reyes, Noa Mochales, Miren Gorrotxategi, Oihane Luque eta Jaione Pernudo. Eguraldiak erabiltzen dutela, "erreferentzia gisa eta ideiak hartzeko".



Zuzendaritzako kideak, ezkerretik hasita, zutik, Naiara Perez, Leire Reyes, Noa Mochales eta Miren Gorrotxategi; makurtuta, Oihane Luque eta Jaione Pernudo. M.G.



X. edizioan eguraldia lagun izan zuten antolatzaileek. E. GONZALEZ

antolatzaileen Instagram kontua erabiltzen dutela, "erreferentzia gisa eta ideiak hartzeko".

Eguraldiari begira

2025eko edizioa eurtsua izan zen, eta aurten ere zerura begira daude antolatzaileak. Izan ere, iragarpena ez da ona, eta, haien ustetan, eguraldiak zerkusi handia dauka herriarren parte-hartzearekin. Horrekin lotuta, gogorarazi nahi dute Sagardo Eguna zabalik dagoela euskara eta euskal kultura sustatu nahi duten guztientzat.

Eguraldiak eguraldi, lanak bukatuta eta ajeak uxatuta, institutuko batxilergoko bigarren mailako ikasleak ikasbidaian joango dira jai horren bihar-munean, martxoak 15, lanak emandakoari etekina ateratzeko gogotsu.

Parte hartuko duten sagardotegiak

- Aburuza
- Aldaiondo
- Añota
- Arratzain
- Begiristain
- Bereziartua
- Etxearriaga
- Larrarte
- Lizagar
- Martintxonea
- Rufino
- Saizar
- Txindurri iturri
- Zapiain



MARTXOAREN 8A

Mobilizazioa Martxoaren 8an



MIKEL MADARIETA

Martxoaren 8an, Ermuko Mugimendu Feminista osatzen duten Emakumeen Asanbladak eta Nü Shu Gazte Feministak manifestazio jendetsua egin zuten herriko kaleetan barrena, *Batu feminismora* lelopean. Bukatutakoan, hainbat parte-hartzailek bazkari autogestionatuaz gozatu zuten plazan, eta, jarraian, Iraia musikari ermuarraren emanaldia egon zen leku berean.

zermik
SISTEMA ELEKTRONIKEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



ZERMK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzale
bideko diseno elektronikoa garatzen
espezializatu dagoen ingeniaritza-entesa
da. Homez gain, LACVIEI-ren bitartez sistema
industriaren kontrola eta monitorizazioa
bidetarako gaitasuna ere badu.



Jantzi ezazu estiloz zure ohea.

- Tamainu standar guztiak.
- Zure ohera moldatzen den neurria aukeratu dezakezu.
- Akabera eta koloreetan aukera zabala, kalitate goreneko polister eta polipielaren artean aukeratu ahal izango duzu.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

Martxan da Haurrentzako eta Gazteentzako VI. Komiki Lehiaketa

Dorleta Vidal
Ermuko Udal Liburutegiak herriko gaztetxoei zuzendutako komiki lehiaketaren seigarren aldia antolatu du, eta bertan parte hartu ahal izango dute Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako, DBHko laugarren mailako eta Ermua-Mallabia OLHUIko ikasleek. Lehiaketaren helburua da irakurketa eta narrazio-genero horren sormena bultzatzea. Parte hartu nahi dutenek DIN-A4 formatuko orri bateko edo biko istorioa asmatu eta marraztu beharko dute, eta, luzera izan ezik, oinarriek egilearen

esku uzten dituzte gainontzeko osagaiak: gaia eta teknika libreak dira, koloretan edo zuri-beltzean izan daiteke, eta euskaraz, gaztelaniaz edo testurik gabekoa.

Bi sari
Lanak eskuz eraman beharko dira liburutegira –lanegunetan, 09:00etatik 20:00etara–, gutun-azal baten barruan, eta horren baitan gutun-azal txikiagoa sartu beharko da, sortzailearen datuak gordeko dituen a–izen-abizenak, telefonoa eta ikastetxea–. Horretarako azken eguna martxoaren 27a izango da.



Teknika eta gaia libreak dira. F.P.

Bi sari izango dira: 60 euroko erosketa-txekea komikiak eta marrazteko materiala erosteko LHko irabazlearentzat, eta 100 eurokoa DBHko eta OLHUIko ikasleentzat. Martin Azpilikue eta Kike Infame komikigileek eta liburutegiko langileek osatuko dute epaimahaia, eta haren erabakia apirilaren 15ean jakinaraziko dute.

NIRE USTEZ Pispilluen zuhaitza



MIGUEL BLANCO OLAÑETA
ARGAZKILARIA



Valdespina Markesa parkean dagoen Pispilluen arbola goiz loratu da aurten, aurreko asteotako giro epelak bultzatuta. Koloretsu eta ikusgarria, laster helduko den udaberriaren lehen zertzeladak eman dizkio oraindik gehienetan goibel eta euritsu dagoen paisaiari.

Aitor Ojea sortzaile ermuarraren lana, Lobianon ikusgai

D. Vidal
Martxoaren 22ra bitartean, Aitor Ojea (Ermua, 2001) argazkilaria-*ren Paris Syndrome* erakusketa ikusteko aukera egongo da Lobiano Kulturgunean. Syndrome hori nahasmendu psikologiko bat da, eta Parisera doazen turista askok pairatzen dute, hiriarekiko zituzten aurreikuspenak eta errealitatea bat ez datozela ikusten dutenean. Ojearen erakusketak gazteek bizitzarekiko duten etsipena irudikatzen du, eta horretarako hainbat elementu erakusten ditu egileak; batez ere, argazkiak, baina baita material askotariko objektuak ere. Sorkuntza eta Diseinuan graduatua EHUn, Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboa masterra egin berri du ermuarrak, eta harekin batera sortu du lan-bilduma hori, urtebeteko epean, gutxi gorabehera.

Nork bere irakurketa
Lobianora joaten direnek euren kabuz interpretatu beharko di-

tuzte bertan dauden lanak, egileak ez duelako inolako azalpenik jaso, "ikusleak egin dezakeen irakurketa ez baldintzatze" haren esanetan. Erakusketa zabalik egongo da egunero, 18:00etatik 20:00etara astegunetan eta 12:00etatik 14:00etara larunbat eta igandetan, eta sarrera doakoa da.



Aitor Ojea. D.V.

Palestinaren aldeko ekintzak egingo dituzte asteburu honetan

D. Vidal
Ermua Palestinarekin ekimenak herrialde haren aldeko bi ekintza egingo ditu bihar, Sagardo Egunaren inguruan. Alde batetik, otarre "eder" bat zozkatuko du, Palestinako herriari ematen dion babesa finantzatzeko. Txartelak plazan bertan eskuratu ahal izango dira, euro batean. Dena den, gaur ere txartel horiek erosteko aukera egongo da, aldez aurretik, Solozabal estankotan. Bestalde, plataforma horretako kideek herritarrak deitu dituzte bihar Palestinaren aldeko zapiak jantera. Zapiak Infreñu tabernan salgai daude,

5 euroan, eta bihar plazan ere erosteko aukera egongo da.

Gaur, elkarretaratzea
Ildo horretatik jarraituz, plattformak elkarretaratzea antolatu du gaurko, ostirala, plazan, 19:00etan, eta horren helburua izango da salatzea Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek Iranen eta Libanoren aurka abiarazitako gerra inperialista. Aldi berean, Palestinako herriaren kontrako genozidioa gelditzeko exijituko dute bertaratutakoek, "hura ez delako eten Trumpen planarekin eta su-etenaren adierazpenarekin", gogoratu dute plattformako kideek.



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

"Bera Beran egon eta gero, beste pertsona bat naiz, beste entrenatzaile bat"

IMANOL ALVAREZ SUPER AMARA BERA BERAKO ENTRENATZAILEA

Dorleta Vidal

Martxoaren 2an jakinarazi zuen Imanol Alvarezek (Ermua, 1967) Super Amara Bera Berako entrenatzailea izateari utziko diola denboraldi bukaeran. Horrekin batera, taldean geratzeko nahia adierazi zuen, baina beste zeregin batzuetan. Alvarezek bederatzi urte egin ditu klubeko lehen taldeko entrenatzaile –2013-2014ko denboraldian eta 2018-2019kotik 2025-2026kora–, eta orain arte 302 partidu eta 17 titulu irabazi ditu: sei Liga, bost Kopa eta sei Superkopa.

Zer dela-eta agur esan hain ibilbide oparoari?

Azkenengo bi urteak neramatzan beste proiektu batzuei heltzeko gogoarekin, eta lehen lerroan egoteari uzteko nahian; behintzat, Bera Beran. Taldearekin hitzartuta neukan datorren urtea azkena izango zela, baina urtarritetik hona zerbaitek esaten zidan lagatzeko momentua zela, eta hala jakinarazi nion zuzendari-tzari.

Presioa dela eta, akaso?

Ez, gaur egun ez dut presiorik sentitzen, oso ondo kudeatzen dut, urte asko dira eta. Pozik nago klubean, etxean bezala

sentitzen naiz, eta hark sustatzen dituen balioekin guztiz bat nator. Baina nekea sentitzen nuen, eta hari gailendu zitzaion gauza berriak egiteko gogoia.

Eta zeintzuk dira proiektu berri horiek?

Gazteekin lan egin nahi dut, Bera Bera barruan, ahal bada, uste dudalako klubak baldintza aproposak dituela bere baitan horrelako proiektu bat gauzatzeko. Beheko taldeak modu egokian antolatu nahi ditut, nahiz eta erraza ez izan, etorkizunean jokalaririk gipuzkoar eta euskaldun gehiago egon daitezen Bera Beran. Hori bera Gipuzkoa osora zabaldu nahi dut, eta dagoeneko bildu naiz Federazioarekin eta Aldundiarekin. Begi onez ikusi dute biek proposamena, eta ematen du proiektua norabide onean doala.

Sumatzen duzu esparru horretan hutsune bat dagoela?

Bai, eta, batzuentzat arraroa izan daitekeen arren, nire motibazioa, gaur-gaurkoz, ez da titulu gehiago irabaztea, baizik eta jokalarien formakuntza hobetzea. Entrenatzailea zarenean emaitzek mugitzen zaituzte eta hartzen dituzun erabakiek as-

kotan kaltetu egiten dute kirolariaren formazioa epe luzera. Orain, beste leku batean egongo naiz, eta horretan eragiteko aukera izango dut.

Erraza izan zen zuzendaritzari erabakiaren berri ematea?

Publiko egin baino astebate lehenago Tatiri esan nion [Tati Garmendia, klubeko lehendakaria]. Erreparoei jaso zuen berria, eta saiatu zen ni iritziz aldatzen, baina ez da bat-bateko erabakia, ondo hausnartutakoa baizik, eta ez dauka atzera-bueltarik. Izan ere, publiko egin nuenetik zenbait lan eskaintza jaso ditut, atzerritik batez ere, baina argi daukat hemen jarraitu nahi dudala, hemen bizi nire familiarekin, eta, nahiz eta diru gutxiago irabazi, benetan sinisten dut abiatuko dudana proiektu horretan.

"Nire motibazioa orain ez da titulu gehiago irabaztea, gazteen formazioa hobetzea baizik"



Alvarezek Bera Berako lehen taldea entrenatu du azken zortzi denboraldietan. D.V.

Jokalariei esango zenien gero...

Bai; lehenbailehen jakinarazi nahi nien, maiatzean partidu garrantzitsuak etorriko direlako, eta ordurako haiek lasai egotea nahi nuen. Ez zen erraza izan hamazazpi jokalariei horrelako berria ematea, eta entrenamendu bat bukatu eta gero komentatu nien, arin batean; hurrengo saioan etorri ziren besarkadak eta emozioak. Beti izan dut harreman ona jokalariekin, baina onartu behar dut aurtengo taldea eta daukagun harremana oso polita dela. Asko errespetatzen naute entrenatzaile gisa, konfiantza handia dute nigan, eta haien artean ere oso ondo konpontzen dira. Horrek ez du ziurtatzen partidu asko irabaziko ditugunik, baina lan egiteko orduan giroa paregabea izan da.

Emakumezkoen eskubaloian izan duzun lehen esperientzia izan da? Zein iritzi daukazu egindakoaz?

Bai; nagusiekin bai. Proposamena egin zidatenean, mutilekin nenbilen, eta askorik pentsatu gabe onartu nuen. Momentu hartan ez nekien, baina nesken eta mutilen eskubaloia oso ezberdina da, ez hobe ez txarragoa, eta hasieratik oso gustura egon nintzen. Esango nuke orain beste pertsona bat naizela, beste entrenatzaile bat, eta kostata joango nintzateke mutilen talde batera. Nesken eskubaloia gustatzen zait, entrenegarriagoa da, arinago jokatzen da...

Nola ikusten duzu eskubaloaren egoera Ermuan?

Uste dut lan polita egiten ari dela.

NIRE USTEZ

Bigarren eskuko merkatua, luxuzko merkatua



NAHIA RUIZ ALBIZURI

Azkenaldian, Vinted bilakatu da nire sare sozial gogokoena. Kontsumismoari aurpegi ona jarritz, etxeko gauzak saldu eta bizitza berri bat ematea ahalbidetzen duen aplikazioa da. Arazoa da, bigarren eskuko dendeekin gertatu zen bezala, *vintage* etiketak garrantzia hartu duela eta prezioek gora egin dutela.

Kontsumoa berraldatu nahi zuen ideia interes handiko merkatu bilakatu da. Gauza zaharrak zein momentuan interes asko dutenak oso

garesti saltzen hasi dira. Bigarren eskuko aplikazio bat da, eta badaude, adibidez, liburu-denda batean baino garestiago salgai dauden liburuak, haiek berriak izanik.

Ulertzekoa da diru pixka bat lortzea ahalbidetzeak etekina igotzeko gogoia ematea, baina ahaztu egiten zaigu erabilia dauden objektuak direla, dituzten

"Ezin dira momentuan erositakoa baino bizpahiru aldiz garestiago saldu"

akatsekin. Ezin dira momentuan erositakoa baino bizpahiru aldiz garestiago saldu. Bai aplikazio horretan bai bigarren eskuko dendetan indarra hartu duten arropak zein objektuak horiek izateak erabat alde batera uzten du oinarrian dagoen berrerabiltzeko helburua.

Kontsumitzeko beste era bat aurkitu da eta merkatuak berea egitea lortu du, berriz ere hain aberatsak ez garenon kontra. Baina gu ere sartu gara jolas horretan, orain guk jarri baititzakegu prezioak. Gogoratu gure gauza erabiliek ez dutela, gehienetan, horrenbeste balio.

Miguel Ledesma, txapeldun duatloian



JOKIN ANGULO


Miguel Ledesma kirolari ermuarrak Galizanoko (Kantabria) 31. duatloia irabazi zuen martxoaren 1ean. Hain zuzen, 1.16.19 egin zuen proba konbinatu hartan, eta minutu bat atera zion bigarren sailkatuari. Ledesmak 6,6 kilometro egin behar izan zituen korrika, 33 kilometro bizikletan eta 3,1 kilometro korrika berriro ere.



Ermuko Korrika batzordeko kideak. NEREA BERRIOZABAL



Mallabiko Korrika batzordea. N.B.



Ekintzaz beteriko Korrika Kulturala prestatu dute Ermuko eta Mallabiko batzordeek

Mallabitarrek eguaztenean abiarazi zuten egitaraua; ermuarrek, atzo

Ander Gomez

24. Korrika martxoaren 19an abiatuko da, Atharratzetik (Zuberora), eta hilaren 29an bukatuko da, Bilbon. Hamaika egun horietan Euskal Herri osoa zeharkatuko du, eta Ermutik eta Mallabitik martxoaren 28ko zapatu gauean pasako da.

Otsailean zehar herri bietako kolektibo eta herritarrez osatutako Korrika batzordeak bildu dira, eta martxo bukaerara arteko ekintza sorta oparoa prestatu dute.

Dantza, kantu eta joko artean ospatuko dute Ermuan

Atzo hasi zen Ermuko Korrika Kulturalaren egitaraua, Antzokian egindako Laburbira film-la-

burren jaialdiarekin; eta hurrengo hitzordua bihar ospatuko den Sagardo Eguna izango da. Martxoaren 24an, talde-argazkia aterako dute lekukoa eramango duten ermuarrek; eta hilaren 26an, pintxo-lagun saioa egingo dute Berbalagunek. Hilaren 27an, Korrikaren bezperan, hainbat ekintza egingo dira: hasteko, ikastetxe guztietako ikasleek Korrika Txikia egingo dute herrian zehar; ondoren, txokolate-jana eta disko-festa izango dituzte plazan; Porrotsek, Marimotsek, Pupuk eta Lorek *Zerua lapurtu* dute obra egingo dute Antzokian; eta institutuko ikasleek DJ festak borobilduko du eguna. Martxoaren 28ko gauean ailegatuko da Korrika Ermura,

baina goizetik hasiko da egitaraua: Plazan Dantzan saioarekin ekingo diote; bukatutakoan, Ermuan Kantuan musikatua eta Egunean Behin Ermuan jokoaren lehia-keta berezia egingo dira; arratsaldean, txosna zabalduko dute, eta Alboka Musika Eskolako bandak eta Gauargi erromeriak girotuko dute iluntzea; Korrika 22:11 aldera pasako da Ermutik, eta, ostean, taula gainera bueltatuko dira Gauargikoak, ermuarrei geratuko zaizkien indar apurrak dantzan agortzera.

Musika, kirola eta tailerrak Mallabiko egitarauan

Eguaztenean egindako Plazan Dantzan saioarekin ireki zuten Mallabiko Korrika Kulturala

Berbalagunek, eta beste saio bat hitzartu dute hilaren 25erako. Aurretik, martxoaren 21ean jokatuko den Frontenis Txapelketa Mistoa gehitu du egitaraua AD Mallabia FTK; eta hilaren 24an, UEMaren tailerra egingo da, familiei zuzenduta. Martxoaren 27ko arratsaldean Korrika Txikia egingo dute eskolako umeek, txokolate-jana izango dute, eta Gauargi erromeriak girotuko du iluntzea. Martxoaren 28an pasako da Korrika Mallabitik, 22:40 aldera ailegatuta Ermutik; baina egunean zehar askotariko ekintzak egingo dira: talo ikastaroa, triki-poteoa Joanes Illarregi eta Eneritz Artetxe bertsolariekin eta korrikaldirako indarrak hartzeko mokadutxo. Biharamuneko Superigandea ere programaziora batu da, eta multikirola, mahai-jokoak eta euskarazko zinema izango dituzte gozagarri Mallabiko txiki-ekienek. Bukatzeko, joskintza saio berezia egingo dute martxoaren 30ean; bertan, Korrikan erabilitako petoak poltsa bihur-

tu eta bizitza berria emango diete.

Hasierako jaialdiko autobusera batzeko azken eguna

Kaltxango euskaltegitik Atharratzen egingo den Korrikaren hasierako jaialdira joateko autobusa antolatu nahian dabilta, ermuarrentzat eta mallabitarrentzat. Martxoaren 19an irtengo litzateke -08:45ean Mallabitik eta 09:00etan Ermutik-, eta 19:00etan bueltatu bertatik. Momentuz, hemezortzi lagunek eman dute izena, eta gutxieneko plaza kopurua 30 pertsonakoa da. Gaur, barikua, izango da inskribatzeko azken eguna. Interesa dutenek ermua@korrika.eus helbidera idatzi beharko dute.

**Martxoaren 28ko
zapatu gauean
pasako da Korrika:
22:11n Ermutik
22:40an Mallabitik**

300 lagun batu dira zapatuan ospatuko den Borrokari Eguneko herri bazkarira

A. Gomez MALLABIA

Martxoaren 14an ospatuko da Borrokari Eguna, Ander Martin Estenaga mallabitarren omenezko jaia. Familiak eta kuadrillak antolatu dute, eta Martin II.ak frontoi barruan zein kanpoan egindako lagunei batzeko gonbita egin diete. Batzuek egitaraua osatzen lagundu dute, kirol eta kultur emanaldiak

eskainiz; bestetzuk, berriz, horiek disfrutatzen emango dute eguna. Hori bai, guztiak Mallabia I. pilotalekuan elkartuko dira, herri bazkari erraldoian. Lerro hauek idazterako, 290 txartel saldu dira, eta 300 lagunetik gora izatea espero dute. Bazkarira batu nahi dutenek oraindik badute aukia erreserbatzeko aukera, 666 38 51 70 zenbakira

whatsapp mezua bidalita. Umeen-tzako makarroiak eta haragi-bolak egingo dira; eta nagusientzako, marmitakoa eta haragi-bolak. Txikiak menuak 15 euroko kostua du; eta helduenak, 25 eurokoa.

Goizetik gauerako egitaraua

Jaiak zapatu osoa hartuko du, eta Ander Martinen zaletasunen arabera aukeratutako ekintzak izango ditu. Pilotaz gain, txikitatik dantzara lotuta egon zenez, halaxe hasiko dute eguna: 12:00etan, dantza erakustaldia

egongo da parkean, gaztetan harekin aritzen ziren lagunak eta egungo Gazte Alai taldeko umeen eskutik. Ondoren, Mendibil Abesbatzak kantatuko du, eta, 12:30ean hasita, herri kirol-tan-harri-jasotze, txinga, txokor-batze...-lehiatuko dira gisasolatarrak eta Anderren kuadrillakoak. Tartean, Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballes arituko dira bertsotan. 13:00etan, pilota partidak jokatuko dituzte Malle Pilota Eskolakoek eta Martin II.aren zaletasun nagusia partekatzen duten inguruko la-

gunek. 14:00etan, triki-poteoa egingo da herrian zehar, eta, edan ostean, bapo jaten bukatuko dute 15:00etan egingo den herri bazkarian. 17:00etan erri-fen zozketa egingo du Egoitz Txurruak, eta, ostean, kontzertu akustiko sorpresa egingo da, gonbidatu bereziekin. Gero, mus txapelketa hasiko da pilotalekuan, eta 18:00etan, Burrunbada elektrotzaranga aterako da kalera. Bukatzeko, kontzertu sorta egingo da parkean, 21:00etan hasita, Apokalipsis, Dezein eta Storbais taldeekin.

Frontenis Txapelketa Mistoak sei urte bete, eta 1.000 euro banatuko ditu saritan

Diru-sariez gain, txapelak, garaikurrak eta partaide guztientzako opariak egongo dira

Ander Gomez

Bertan da lekutako frontenis jokalaria Mallabira ekartzen dituen urteroko hitzordua. AD Mallabia FTK gizonezkoen txapelketarekin itxi zuen urtea, eta emakumezkoen lehiarekin eman ohi diote ongiatorria uda sasoiari. Urteko lehenengoan, ordea, nahastuta jokatzen dute, modalitate mistoan. Aurtengoa seigarren edizioa izango da eta datorren astean jokatuko da, martxoaren 21ean, zapatua.

Momentuz, hamaika bikotek eman dute izena, eta gehienak kanpokoak dira: lau Euskal Herrikoak dira –horietako bat nafarra–, eta gainontzeko bikoteak Estatuko hainbat txokotatik etorritako jokalariek osatuko dituzte –Errioxa, Burgos, Leon, Zaragoza, Soria, Valladolid...–. Oraindik, beste hamahiru plaza geratzen dira txapelketaren kupoa betetzeko.

Txapeldunak eman eta erakarri

2020an egin zen lehen edizioa, eta Errioxatik eta Burgostik etorritako Lorena Barron eta Jony Serna izan ziren garaile.



lazko edizioiko talde-argazkia, sari banaketaren ostean. AD MALLABIA FT

Pandemiaren ondorioz, urtebeteko etenaldia izan zuen txapelketak, eta 2022an bueltatu zen; orduan, Andrea Arnaiz zaragozarrak eta Adrian Viribay errioxarrak irabazi zuten. 2023an, Salamancatik etorritako Andrea Campok eta Mikel Fernandezek irabazi zuten txapela, eta 2024an bertako bikote batek irabazi zuen lehen aldiz: Leire Dueñas eta Endika Romero abadiñarrek. Iaz, lehen txapelketan garaile

izandako Barron-Serna bikotea Mallabira bueltatu eta bere nagusitasuna berretsi zuen, bigarren txapela lortuta.

AD Mallabia FTK nabarmendu duenez, frontenis maratoi horrek txapeldun ugari eman ditu, baina beste asko erakarri ere bai: "Espainiako txapeldun izandako jokalariek hartu dute parte; besteak beste, Maialen Bilbao, Ana Garcia, Miriam Ruiz eta Lorena Barron".

Denentzako sariak

Ohi bezala, bi kategorია egongo dira: orokorra eta eskualdekoa –Deba Bailarako, Durangaldeko eta Lea-Artibaiko jokalariei mugatua–. Azken hori "zonako bikoteen parte-hartzea sustatzeko" gehitu zela diote, "eta gutxienez sari bat ziurtatuta dute". Sari hori 100 eurokoa izango da, baina bikote irabazleak kategoría orokorrean parte hartu eta hiru sarietako bat irabaziz gero, laugarren bikoteari emango zaio. Kategoría nagusiko irabazleek txapela eta 400 euro jasoko dituzte; bigarren eta hirugarren egiten dutenek, berriz, garaikurra eta 300 eta 200 euro, hurrenez hurren.

Dena den, galtzaileak ere irabazle aterako dira Mallabia I. pilotalekutik: hain zuzen ere, "guztien presentzia eskertu eta saritu" nahi dute; horregatik, parte-hartzaile guztiek oparitxoak jasoko dute sari banaketan.

Inskribatzeko azken aukera

Izena emateko epea astelehenean itxiko dute, martxoaren 16an. Gehienez, 24 bikotek hartu ahal izango dute parte; beraz, "lehenbailehen izena ematera" animatu dituzte eskualdeko frontenis-zaleak. Sare sozialen bitartez edo 669 02 87 18 telefonora idatzita eman dezakete izena. Inskripzioaren prezioa 24 eurokoa da bikote bakoitzeko, eta 12 eurokoa AD Mallabia FTren bazkideentzat.

EZ ESAN!
MALLABIARI BURUZKO
GALDERA-ERANTZUNEN JOKOA
MARTXOA



Mallabiko Berbalagunek EZ ESAN! jokoaren edizio berezia prestatu dute, BARRENAren inguruan. Oraingoan, test formatua utzi eta galderak idatziz erantzun beharko dira. Zenbat dakite mallabitarrek aldizkari berriari buruz? Ikus dezagun!

1. Zenbatean behin ateratzen da BARRENA aldizkaria?

2. Oro har, sei herritako berri ematen du; zeintzuk dira?

3. Ze aldizkari batu dira BARRENA sortzeko?

4. 2025eko abenduan atera zen lehen zenbakia. Zein egunetan?

5. Zein herritan du sorburua Deba ibaiak?
Informazioa BARRENA aldizkariaren lehen zenbakian.

Otsaileko erantzunak:

1. a | 2. b | 3. a | 4. a | 5. b

Irabazlea:

Leixuri Solozabal



MARTXOAREN 8A

Domeka honetan bukatuko da M-8ko agenda kulturala



A. GOMEZ

Mallabitarrek bat egin zuten Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, Kontzejuzarrean egindako ekitaldian. Igor Agirre alkateak eta Igone Amesti zinegotziak adierazpen instituzionala irakurri zuten, eta, ostean, berrogei herritar inguruk elkarretaratze isila egin zuten bertan. Ondoren, Virginia Imazek *In Crescendo* clown ikuskizuna egin zuen, eta Rouhaifa Kassem artistaren *Emakume palestinar baten begirada* artelan-bilduma eta eskolako umeek euren

emakume erreferenteen inguruan egindako *Mundialak zarete!* proiektua jarri zituzten ikusgai. Erakusketa biak domeka eguerdi honetan ikusi ahalgo dira azkenekoz, Emakumeen Osasun Eskolaren *Menopausia vs Andropausia* ikastaroarekin batera.

Kirol agendari dagokionez, elite mailako emakumezkoen Euskal Herriko Gomazko Paleta Txapelketaren finalarekin eta AD Mallabia FTren Frontenis Txapelketa Mistoarekin bukatuko da.



Institutuko ikasle-irakasle talde bat Korrikari atxikimendua erakusten. SORALUZE BHI



Soraluze Pilota Elkarteko pilotariak, eguaztenean.



Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko hainbat kide.



Zuhaitz Eguneko hainbat partaide, Korrikarekin bat.

Greba orokorra eta mobilizazioak izango dira martxoaren 17an

Ubane Madera Zangitu SORALUZE LAB, ELA, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek greba orokorra deitu dute martitzenerako, martxoak 17. *Gutxieneko soldata hemen erabaki, SMI 1.500 euro leloarekin, bizi-baldintza duinak eta aberastasunaren banaketa justua aldarrikatuko dituzte.*

"Krisia zein hazkundera izan, patronalak irabaziak handitu ditu langileak pobretzearen kontura. Desberdintasun sozialak areagotu egin dira, bereziki emakume, gazte eta langile migraenteen artean, eta gutxi batzuen etekinak gure lan- eta bizi-baldintzen gainetik jartzen dituzte", salatu du, besteak beste, LAB sindikatuak. Gaineratu duenez, "egoera erabaki politiko eta enpresarialen ondorio da; aberastasuna justuago banatu behar da". Soldatei dagokienez, dio "gaur egungo soldatek" ez dutela "oinarritzko gastuei aurre egiteko aukerarik ematen".

Soraluzeko mobilizazioak

Grebarako deialdiaz bat, mobilizazioak ere egingo dira egun horretan, herriz herri zein hiriburuetan; Debabarrenari dagokionez, baita Eibarren ere.

Soraluzeko LABeko greba batzordeak ere antolatu ditu mobilizazioak: 10:30ean, elkarretaratzea Plaza Barrixan; 11:00etan, autoen irteera Eibarko manifestaziora joateko; 12:30ean abiatuko da manifestazioa, Untzaga plazatik; eta 19:00etan beste manifestazio bat izango da, Plaza Barritik abiatuta.

Neguko azken landaketa egingo dute, bihar, bidegorrian

Bihar, zapatua, egingo dute neguko azken landaketa, bidegorrian, Linazibar pareko lursaillean, Baso Biziak-ek antolatuta. Landare inbaditzaileak kontrolatu, mantentze-lanak egin eta zenbait zuhaitz landatuko dituzte. Lurgaiako teknikariek gidatuko dute. 09:30ean Olako apartokalekuan elkartu, eta batera joango dira lursailera.

Egitaraua

- **Peto banaketa** 18an, Plaza Zaharrean.
- **AROaren aurkezpena** 18an, Plaza Zaharrean.
- **Irakurri eta gozatu.**
- **'Ekain Txou'** 22an, Antzokian.
- **Ipuin kontaketa** 24an, Liburutegian.
- **Pilota partidak** 25ean, Aranen.
- **Bertso poteoa** 26an.
- **Korrika Txikia** 27an.
- **Bakarrizketak** 27an, Gaztetxean.
- **Korrika** 28an.

txeak, guraso elkarateak, AEK eta Udala. Haiek aurkeztuko dute plana.



24. KORRIKA

Korrika ailegatu bitartean, denetariko atxikimenduak eta ekitaldiak izango dira

Martxoaren 18an petoak banatu eta euskara biziberritzeko AROA plana aurkeztuko dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE Martxoaren 19an, eguna, abiatuko da Korrika, eta Soraluzen ere ari da haren bueltako giroa indartzen. Herriko talde, elkarte eta eragile ugari adierazi diote atxikimendua euskararen aldeko lasterketari. Argazki bidez egin dute eta egingo dute hori, eta martxoaren 28an, zapatua, Korrika Soraluzera ailegatzaren denean -20:35 inguruan-, lekukoa hartu eta herrian barrena lagunduko diote.

Aldi berean, Korrika Kulturala ere bizi-bizi dago. Orain artekoek aparte, datorren astetik

martxoaren 28ra arte denetari-ko ekitaldiak izango dira herrian. Batzuk aipatzearren, martxoaren 18an banatuko dituzte petoak, martxoaren 22an *Ekain Txou* zirku-emanaldia izango da, martxoaren 25ean herriko pilotarien partidak eta martxoaren 27an, Korrika Txikia (Ondoko taulan ekitaldi guztiak).

10 urterako da AROA

Halaber, Korrika Kulturalaren baitan aurkeztuko dute Soraluzen euskara biziberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko plan berria. AROA izena du eta 2025-

2034 urteetarako dago aurreikusita. Plaza Zaharreko karpan da hitzordua, martxoaren 18an, 18:00etan.

Aurkezpenean, Soraluze euskarari dagokionez nola dagoen azaltzeko zenbait datu esanguratsu emango dituzte. 10 urtean lortu nahi denaren berri emango dute, eta horretarako gako nagusiak eta lehentasunak zeintzuk izango diren azalduko dute.

AROa herritarren parte hartzearekin osatu da eta talde eragile bat ere badu. Bertako kide dira Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea, herriko ikaste-

"Goya berpiztu egin da" Vitalia Samuilovak Oreka Art galerian erakutsitako obretan

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Lana, mugimendua, indarra, ahalegina, tentsioa, itxaropena, begirada gurutzatuak... hori guztia transmititzen eta erakusten dute Vitalia Samuilova artistak Oreka Art galerian erakusgai jarri dituen grabatuetan. Gai humanoak abiapuntu, keinu kolektiboen edo taldeen bitartez islatzen du hori. Zuri-beltzean egindako grabatuak dira guztiak ere, "grabatuaren eta monotipoaren" arteko pieza modura ere deskribatu zituzten erakusketaren inaugurazio ekitaldian.

Goyaren pareko

Baina Vitalia Samuilovaren grabatuek erakusten dutenetik harago, haren grabatuen trazuek, obretako protagonisten keinuek, marrez eta marrez osatutako irudiek... finean, grabatuen estiloak erakartzen du ikusleen atentzioa, bai arte jakintzan

neofito direnena, baina, batez ere, artean eskarmentu luze-zabala duten horien. Horren harira, erakusketaren irekieran egon ziren artisten artean, Esteban Orozek, Eibarren bizi den artista nafarrak, erakusketa ikusteaz bat adierazi zuen: "Goya berpiztu egin da".

Bi hilabetez

Barikuan inauguratu zuten *¿Quién lleva a quién?* erakusketak eta apirilaren 28ra arte izango da hura ikusteko aukera. Ordutegia, barikura arte, 19:00etatik 20:00etara, edo, bestela, txanda nahieran hartuta: 635 70 66 90 / 943 75 21 39.



Vitalia Samuilovaren erakusketaren inaugurazioan grabatu bat ikusten. U.M.Z.

Argazki Rallyko saridunak ikusgai

Astelehenean inauguratu eta martxoaren 21era arte izango da ikusgai Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako 36. Argazki Rallyan saridun izan ziren erretratuen erakusketa. Honako gai hauekin landutakoak dira: *Berge argia, Isladak, Up& Down, Kaleko errotuloak* eta *Blues Hotsak jaialdia*.



UBANE MADERA

Eraikin pribatuetako fatxadetako pintaketak garbitzeko aukera

Soraluzeko Udalak jakinarazi duenez, Hirigintza, Lan eta Zerbitzuen batzordeak eraikin pribatuetako fatxadetako pintaketak garbitzeko aukera eskainiko du aurrerantzean. Hain justu, zerbitzuari esker, etxe-jabe partikularrek eta jabeen erkidegoek Udalarari eskatu ahal izango diote beren fatxadako pintaketak garbitzeko.

Garbiketa zerbitzu hori Udalak hartuko du bere gain, eta, hartara, doakoa izango da eskatzailarentzat. Garbiketa eskatu ahal izango dute jabe partikularrek eta jabeen erkidegoek, udaletxean eskaera-orria entregatuta.

Eskaerak egiteko bi bide egongo dira: telematikoki, Soraluzeko Udaleko egoitza elektronikoko sarrera-erregistroaren bitartez aurkeztuta; eta aurrez aurre, Udaleko Harrera Bulegoan, astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:00etara.

NIRE USTEZ

Emakumeen nazioarteko eguna



IMANOL LOPEZ

Martxoaren 8ko aldarrikapen egunaren oihartzunetan sarritan azaltzen dira, besteak beste, Clara Campoamorren irudia eta feminismoak Euskal Herrian izan duen bilakaera. Campoamor Lausanan (Suitza) hil arren, Donostiako Polloe Kanposantuan dago hilobiratuta.

Orain ez dela denbora asko hara gerturatu nintzen, ez bere hilobia bisitatzerako, baizik eta Wikipediaren arabera Donostian jaio eta hantxe lurperatuta zegoen beste emakume baten hilobia ezagutzera.

Emakume hau eta bere ahizpa orain mendeurrena betetzen duen Madrilgo Lyceum Club Femeninoren sorreran izan ziren. Borrokan jardun zuten garai hartan puri-purian zeuden hainbat aurrerapauso lortzeko; batzuk II. Errepublikaren etorrerarekin lortu ziren: emakumeen boto eskubidea, emakumearen ahalduztze eta burujabetza...

Ospe handiko emakumeak ziren klub horretako bazkide: Clara Campoamor bera, Victoria Kent, Maria Maeztu, Zenobia Camprubi, eta baita gure bi ahizpa hauek ere: Amalia eta Josefina.

Ospe handiko emakumeak ziren klub horretako bazkide

Amalia klub horretako zuzendaritzako partaidea izan zen, diruzain karguan.

Ez dirudi elkarte honetako partaide izatea *postureo* hutsa zenik. Amaliaren oinordekoek gogoratzen dute bere etxean sortzen ziren eztabaida literario, kultural eta politikoetan emakumeek berdin-

berdin parte hartzen zutela, inongo oztoporik gabe –gogoratu garai hartan emazteak senarrari eskatu behar ziola onarpena edozein gauzatarako-. Ez hori bakarrik, Amaliaren alaba izan zen Karrera Diplomatiakoan –gizonen esparrua– sartu zen lehenengo emakumea Espainiako Estatuan.

Egun, bilobek bere ospea azaltzeko eman izan duten hitzaldietan adierazi dute ez dakitela garbi euren amama nongoa zen: agian, Donostiakoa; noizbait ausartzen dira esaten Eibarkoa zela.

Polloera egindako bisitan ez nituen ez Amalia ezta Josefina ere aurkitu. Ez dira erregistroan ageri. Bai, oster, beren neba. Beraz, Wikipediaren bigarren akatsa: ez dago Donostian hilobiratuta. Eta lehenengo akatsa: ez zen Donostian jaio, ezta Eibarren ere.

Amalia Galarraga Azkarrunz Plazentzian jaio zen, 1885eko uztailaren 8an; eta Josefina Galarraga Azkarrunz, 1900eko abuztuaren 27an. Hala dio Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxiboan dagoen Plazentziako Bataioen Liburuak.

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 • 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleriaaras.com
www.tomilleriaaras.com

KM design
Kira Muntakak
943 76 99 85
kumuntak@yahoo.es
www.kmdesign.es
Pol. Amalaga 5
BERGARA
■ Diseinua eta Fabrikazio lanak
■ Sukatideak
■ Horma-oinarriak
■ Logelak
■ Zoruak
■ Aleak...
■ Arotzeria
■ Lanak oro har
■ Instalazioak

BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK
Zakurrentzako
janaria eta
osagaiak



Indarra, ilusioa, aldarria eta konplizitatea transmititu dituzte Martxoaren 8an

M-8ko ekitaldien antolatzaileek oso modu positiboan baloratu dute emaitza

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Zapore oso ona laga du aurten-go Emakumeen Nazioarteko Egunak. Jendetsua izan delako. Nagusiak, helduak, gazteak zein umeak, denetariakoak izan direlako. Aldarrikapenak ozen entzunarazi direlako. Emakumeen arteko konplizitatea bistakoa izan delako. Eta, batez ere, aurtengo Martxoaren 8ko egunera bertara ilusio bereziarekin iritsi direlako partaide asko eta asko.

Hirutan izan da M-8a

Azken hori elkarrekin abesteko proposamenaren ondorioa izan da. Izan ere, horri esker, urtean behin barik, aurten Soraluze hirutan sentitu da Martxoaren 8aren indarra: kantua entseatzeko egin diren emakumeen arteko topaketa bietan eta egunean bertan. Eta hori, indar hori, eta orain esaten den moduan, emakumeen arteko sororitate hori, plazara eraman zuten domekan, eta kantuaren amaieran eztanda egin zuen.

Antolatzaileen balorazioa

Hain justu ere, horixe bera nabarmendu dute aurtengo M8aren antolatzaileek balorazioa egite-rakoan.

Manifestaziora eta aldarrikapenera deitu zuten Soraluzeko Emakume Feministen esanetan, "aurtengo M-8a ederra izan da. Aldarrikapena jai bihurtu da horrenbeste emakumeren sartzeari eta parte-hartzeari



Manifestazioa Kalebarren kaletik pasatzen. JON AGIRRE



Emakumeak elkar besarkatzen, *Elektrizitatea* kantaren amaieran.

esker. Antolatzeak eta borrokak merezi duelako. Zorionak gurtioi!".

Zea Mays taldearen *Elektrizitatea* kantua elkarrekin abesteko proposamena egin zuen M-8ko abeslari taldearen esanetan,

berriz, "pozgarria izan da ekitaldia nola gorpuzten joan den ikustea. Ilusioak, aldarrikapenak eta talentuak bat egin zuten ekitaldian. Gogotsu geunden denok, eta hori, gure ustez, igarri egin da".



Ekitaldiak bukatu ondorengo argazki kolektiboa. EGOITZ UNAMUNO



Lorea Elizburu dendaria *Anexos al Colón vizcaíno* liburu eskuetan. U.M.

'Anexos al Colón vizcaíno' liburu eskuragarri dago herrian bertan

Maileguan Udal Liburutegian eskura daiteke liburua; eta erosi, berriz, Iratxo gozo-dendan, martxoaren 23ra arte

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Jesus Galarraga *Malmero*-k (Soraluze, 1959) –Ana Eizmendi Lazcanok (Zarautz, 1955) lagunduta– argitaratu duen *Anexos al Colón vizcaíno* liburuaren bertsio fisikoa eskuragarri ipini dute Soraluzen.

Liburua kontsultatu edo eskuratu nahi duenak mailegutzan hartzeko aukera du Udal Liburutegian, eta erosi nahi duenak Iratxo gozo-dendan eros dezake, martxoaren 23ra arte, "oso prezio onean", egileek ez baitute irabazi-asmorik. Eskatutako aleak iritsitakoan, eskatzaileei deitu egingo diete telefonoz, jaso ditzaten.

Bestalde, argitaratzaileek jakinarazi dute liburua Amazonen bitartez ere eskatu ahal izango dela, baina "garraio gastuak direla-eta garestiago" izango dela bide hori.

Ikerketa lanaren emaitza

Egileek kontrazalean laburbildu dutenez, Paco Vargasek 1936an argitaratu zuen *Colón vizcaíno* liburuak hipotesi "ausart bezain sutsu bat" defendatu zuen: Kristobal Kolon ez zela genevarra, euskalduna baizik, Soraluzen jaioa. Ia mendea geroago, Jesus Galarragak osatu duen liburuak iturriak ikertzeari heldu dio "begirada kritikoarekin, eta digitalizazioari eta Interneti esker eskuragarri dauden iturri historikoetan oinarrituta". Dokumentu, toponimo, testigantza eta testu originalak aztertu ditu egiaztatzeko Vargasen tesia zenbateraino den sinesgarria. Kolonen jatorria frogatzeko asmorik gabe," historia, memoria, eta pasioaren arteko bide liluragarria egitera gonbidatzen" ditu irakurleak, baita "bizitza ideia bati eskaini zion ikertzaile ahaztua beraurkitzera ere".

'Gaua' filma domekan, Martxoaren 8ko ekitaldien baitan

Etzi, domeka, *Gaua* filma proiektatuko dute antzokian, 17:00etan. Paul Urkijok zuzenduta, istorioak Kattalin du protagonista; sorgin-ehiza saioan, senarrarengandik ihesi, baserritik alde egiten du, gauaren erdian. Aisialdia Elkarrekin lantaldeak antolatu du ekimena, Zinema Euskaraz zikloaren baitan.



SORALUZKO UDALA

'Promesa berdina egin diegu lagun guztiei' eta 'Hautsak harrotzen', Ispiluen gelan

Beste bi ekitaldi ere izango dira asteburuan, Korrika Kulturalaren baitan

Izaro Aulestiarte

Aurrera jarraitzen du Debako Udalak *Ispilu(h)ari* izenburuean abiatutako kultur programak, eta asteburu honetarako proposamen bikoitza dakar Agirre jauregiko Ispiluen gelara: gazteentzako eta helduentzako antzezlanak da bata, poesia, umorea eta performancea uztartzen dituen; eta 12 urtetik beherakoen-entzako pailazo ikuskizuna bestea. Biak ala biak Korrika Kulturalaren baitan egingo dira, doan.

"Bi aktorek laguntasunaren ospakizun kritiko bat sortuko dute, publikoa eskutik hartuta". Hortxe Infinitudrama konpainiak bihar, martxoak 14, 18:00etan taularatuko duen *Promesa berdina egin diegu lagun guztiei* lanaren abiapuntua. "Euforiaren aparretan agertuko dira adiskidetasun erromantikoa eta taldearen apologia. Zaratak utzitako tarteetan, berriz, kontraesanak, galderak eta galerak", aurreratu du taldeak. 2024ko Poltsiko Antzerki Sorkuntza deialdian epaimahaiaren lehen saria eskuratu zuen antzezlanak.

Igandean, berriz, *Hautsak harrotzen* ikuskizuna izango da, 17:30ean. Jolasa, umorea, algarak



Promesa berdina egin diegu lagun guztiei ikuskizunaren une bat. INFINITUDRAMA KONPAINIA

eta zirkua; guztiak uztartuko ditu Ekain pailazoak, haren abilezien bitartez publikoa liluratzeko asmotan.

Aurrez, bertso afaria eta ipuinak

Bi ikuskizun horiez gain, Korrika Kulturalaren baitan beste bi hitzordu izango dira aukeran egunotan. Batetik, bertso afaria izango da gaur gauean Arrano Elkartean, 21:30ean, Nerea Ibarzabal eta Aner Peritz bertsolari ezagunekin; sarrerak Burugorri, Ieraenean eta Zalburdin daude

salgai, 30 euroan. Bestetik, Debako Kontalariak ipuin-kontaketa saio berezia iragarri dute bihar goizeko, 12:00etan, Kultur Elkarteko plazan.

Joan den asteburuan abiatutako egitarauaren jarraipena baino ez da izango. Arropa salmenta, Kanean Kantuzen eta Aitzuriren emanaldiak, Iruleak taldeak antolatutako pala txapelketa mistoa, Amaiak Batek ateratako talde argazkiak, Errigoraren produktu dastaketa... Agenda betea izan zen Deban eta Itziarren.



Alain Zulaika ilusionista elgoibartarra. ALAIN ZULAICA

Alain Zulaikak 'Magia zaparrada' ikuskizuna dakar Kultur Elkartera

I.A.

Alain Zulaika ilusionistak familia osoari zuzendutako *Magia zaparrada* ikuskizuna aurkeztuko du gaur, ostiralek, Kultur Elkartean. 20:00etan hasiko da KulturEkin programazioaren baitan antolatutako saioa, eta sarrerak 4 euroan eros daitezke, bai Internet bidez labur.eus/nialakulturekin estekan eta bai aurrez aurre, aretoan bertan.

Niala mago elgoibartarraren esanetan, "ikusizuna eszena harrigarri batekin hasten da: euri-tanak benetako txanpon bihurtzen dira. Horri esker, bertara etortzen diren haurrak hurrengo egunean beren itsulapikoak apurtzetik 2 euro ger-

tuago egongo dira –literalki–. Dena den, aurreratu du hori hasiera besterik ez dela izango: "Saioan zehar, ikusleek ustekabeko uneak biziko dituzte, hala nola *splash gune* txiki bat, non ikusleren batzuk pixka bat busti daitezkeen, edo ikusle batek etxera eramango duen ezinezko objektu baten sorkuntza".

"Ilusio-kuota handitu" nahian

"Ezinezko efektuen segida eten-gabea" proposatuz, adin orotako pertsonak harritzeko pentsatua dago ikuskizuna. Gainera, emandako bakoitza ezberdina izaten dela azaldu du: "Nire helburua munduko ilusio-kuota handitzea da, Debarrenetik hasita".

NIRE USTEZ

Ondo? Ez, hobeto



GORKA AGIRREZABALA

Urte bat izango da erantzun hau erabiltzen hasia naizela. Orain bi urte izango dira gure Anje egun berean etorri eta joan zitzaigula, eta, laguntza eskatzearen ondorioz, orain hobeto gaude. Kosta zitzaigun kalera irteeta eta Debara etortzea. Gehienbat, jendearen gurekiko jarreraz beldur ginelako. Baina harriduraz konturatu ginen jendeak guri beldur gehiago zigula, eta, ondorioz, gertatzen da ezer ez esatea, begirada jaitea... – intentzio txarrik gabe, noski, zer esan ez dakigulako horrelako galeren aurrean.

Asko sufritu dugu biok. Eta biok esaten dut, situazioak izan direlako non nire aurrean amari bakarrik galdetzen zaion ea zer moduz dagoen, aitaren sufrimendua ikusezin bihurtzeraino. Osasun publikora laguntza psikologiko eske joan eta ni kanpoan utzi, nik ere umea galdu dudana arren.

Sufrimenduaren ikuspegi honetaz ez gara kontziente norberak bizi duen arte, baina gogor eragiten du doluan.

Ulertzeko, orain estreinatu berri duten Aitatxo dokumentala ikustea gomendatzen dizuet, lau aitaren testigantzak biltzen dituen, gai hau azaleratuz.

DBH-4ko ikasleek moda desfilea egingo dute gaur Aldats pilotalekuan

I.A.

Mendata BHIko laugarren mailako ikasleek moda desfilea prestatu dute gaur gauetarako, martxoak 13. Hilaren 23tik 27ra Calafell herrira (Tarragona) egingo duten ikasbidaiarako dirua biltzeko helburuarekin antolatu dute, hain justu, ikuskizuna. 22:00etan hasiko da, Aldats pilotalekuan, eta sarrerak 5 euroan izango dira salgai.

Aurreratu dutenez, guztira 50 bat ikasle parte hartuko dute desfilean, modelo lanetan, baina jende gehiago dabil antolakuntzan, guztia txukun prestatze aldera.

Besteak beste, herriko zenbait establezimenduren laguntzarekin

egingo dute ekimena. "Urtero antolatzen da desfilea, ikasbidaiara joateko dirua lortu ahal izateko. Baina, aldi berean, herriko denda txikiak sustatzeko helburua ere badauka hitzorduak. Beraz, modu ona da herria frontoian elkartzeko", nabarmendu dute ikasleek. Herriko denda, ekoizle eta ile-apaindegi hauek erakutsiko dituzte beren produktuak eta zerbitzuak desfilean: Mugan, Bohem, Ipar, Katxalote, Yako, Estilo, Kairos, Apain, Jartxa, Janire eta Maitane, Adats, Ilea eta Sufian.

Aurreko urteetako harrera ona ikusita, herritarrei aurten ere pilotalekura bertaratzeko dei egin diete.

Amaitzean da 'Deba 100 hitzetan' sariketara lanak aurkezteko epea

Cardenas fundazioak eta Debako Udalak antolatutako *Deba 100 hitzetan* literatur lehiaketan parte hartzeko epea etzi bukatuko da, igandean. Hamargarren edizio horretan ere Debari buruzko 100 hitz baino gutxiagoko eta argitaratu gabeko lanak sarituko ditu epaimahaiak. Idatzia martxoaren 15eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira, Turismo Bulegoan edo turismoa@deba.eus helbidera bidalita.

Lehiaketak bi modalitate ditu, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, eta bakoitzean hiru sari daude jokoan: 300 euroko lehen saria, 200 euroko bigarren saria eta 150 euroko sari berezia, saritu ez duten tokiko lan onenarentzat.

Debako sorospen zerbitzuaren lizitazio prozesua abiarazi du Foru Aldundiak

Apirilaren 1ean amaituko da eskaintzak lehiaketara aurkezteko epea

Izaro Aulestiarte

Gipuzkoako Foru Aldundiak Santiago eta Lapari hondartzetan zaintza, salbamendu eta sorospen zerbitzua kontratatze-ko lizitazio prozesua ireki duela jakinarazi du Debako Udalak. Zerbitzu horren bidez, uda-denboraldian bainularien segurtasuna eta ongizatea bermatu nahi dute, lagundutako bainua eskaintzeaz gain. Kontratuaren aurrekontua 468.284,64 eurokoa da lehen bi urteetarako, hau da, 234.142,32 euro urteko, eta kontratua beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da. Eskaintzak apirilaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataformaren bidez.

Lizitazio prozesu hori 2025eko maiatzean Udalak eta Foru Aldundiak sinatutako "akordio historikoaren baitan" kokatzen dela gogorarazi du Udal Gobernuak. Bada, akordio horren helburua hau da: hondartzako zerbitzuen kostua Foru Aldundiak bere gain hartzea, gas- du hori ez dadin Debako herritarren gain bakarrik geratu. "Horrela, neurriak aringarri ekonomiko garrantzitsua eka-



Santiago hondartza. N.B.A.

rriko dio udalerriri", aipatu du Alazne Txurruka alkateak. "Akordioa Udalak udalerriarrentzat finantzaketa bidezkoagoa lortzeko egindako ahaleginaren emaitza" dela ere erantsi du.

Akordio horri esker, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du hondartzetako zaintza, salbamendu eta bainu egokituarekin lotutako gastuen zati esanguratsu bat, baita hondartzen eta haien inguruen garbiketari dagozkion gastuak ere. Horiek horrela, 2026rako 197.982,38 euroko dirulaguntza emango dio

Debako Udalari, itsasertzari lotutako zerbitzuak kudeatzen laguntzeko; kopuru horretatik, 27.000 euro hondakinen kudeaketarako bideratuko dituzte, eta 170.982,38 euro, hondartzen kudeaketa eta mantentzerako. "Horrela, udalerrriak babes ekonomiko garrantzitsua jasoko du, eta, horri esker, baliabideak beste proiektu batzuetara bideratu ahal izango dira, Debako herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin", azaldu dute. Halaber, beren esanetan, akordioak Udalaren eta Aldundiaren konpromisoa indartzen du, "lurraldeko ingurune naturalen kudeaketa arduratsu eta jasangarriaren alde".

Ekainaren 15etik irailaren 15era Enpresa esleipendunak ekainaren 15etik irailaren 15era arteko zerbitzua eman beharko du, bi hondartzetan, Santiagon eta Laparin. Arreta-ordutegia 11:00etatik 19:00etara izango da ekainean eta irailean, eta 10:30etik 20:00etara artekoa, berri- ruz, uztailean eta abuztuan.

Lizitazio oinarri guztiak Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman daude ikusgai.

Debako Musika Bandak bazkideak omenduko ditu martxoaren 21ean

I.A.

Urtero bezala, Debako Musika Bandak bazkideen omenezko kontzertua egingo du aurten ere. Martxoaren 21ean izango da, larunbatez, Santa Maria elizako klaustroan, 13:00etan. Emanaldiaren ondoren ez dute ez bazkaririk ez dantzaldirik egingo.

Musikariek azaldu dutenez, bazkideei eskerrak emateko baliatuko dute urteroko emanaldia: "Egun, 300 bat bazkide ditugu, eta herritar horien babes esker- tu nahi dugu, beste behin ere".

Bide batez, gogorarazi dute bazkide egiteko aukera zabalik izaten dela urte osoan. Kontzertuetan egin daiteke bazkidetza, baita Interneten ere, sare sozialen

bitartez. Helduen urteko kuota 12 euroan eskaintzen dute, 12 urtetik beherakoena 6 euroan, eta familiarra –hiru kide baino gehiagorena– 30 euroan; askotariko opariak zozkatzen dituzte bazkideen artean.



Bandaren emanaldia, klaustroan. I.A.

Sin PalaBrass taldearen emanaldia, bihar, klaustroan

Santa Maria elizako klaustroan Sin PalaBrass taldearen kontzertua hartuko du bihar, hilak 14, 20:00etan. Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiko ikasle Alberto Caamañok (tronpeta), Sergio Fernandezek (tronpeta), Ariadna Alcoberekek (tronpeta), Oscar Gomezek (tronboia) eta Moises Martinezek (tronboi baxua) osatzen dute taldea.

Sinadurak batzen ariko dira, Eguneko Zentroa egunero ireki dezaten

Debako Eguneko Zentroko erabiltzaileen senideek sinadura bilteta egingo dute bi asteburuz jarraian, zerbitzua asteburu eta jaiegunetan ere ireki dezaten eskatzeko. Hilaren 14an, 15ean, 21ean eta 22an mahaiak jarriko dituzte udaletxe azpiko arkupeetan, 11:00etatik 13:00etara, eta herritarrei ekimenean parte hartzeko dei egin diete.

MARTXOAREN 8A

Debako kaleak ere hartu dituzte berdintasunaren aldeko aldarriek

Mundu osoan egun seinalatua da Martxoaren 8a berdintasunaren aldeko borrokan, eta Deban ere bat egin zuten egun horren bueltan antolatutako mobilizazioekin.

Aldarrikapen eta ospakizun ekitaldiak iragarriak zituzten Debako Udalak eta Sare Feministak, bereizita, eta jende andana batu zen Foruen plazan eta Plaza Zaharrean egindako ekimenetara, hala nola elkarretaratzera, ekitaldira, kantaldira, bazkarira nahiz kontzertura.



I.A.



I.A.



I.A.

500 mendizale elkartuko ditu igandean egingo den Lasturko IX. Mendi Martxak

Urtero legez, bi ibilbide izango ditu probak; leku berrietatik igaroko dira

Nerea Bedialauneta Alkorta

Igande honetan, martxoaren 15ean, izango da Lasturko IX. Mendi Martxa, Izarraitz Bizirik elkartek eta Itziarko Auzo Udalak antolatuta. Proba 07:30ean abiatuko da, San Nikolas plazatik, eta parte-hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzea, 27,37 kilometrokoa eta 1.327 metroko desnibelarekin; eta motza, 20,23 kilometrokoa eta 1.009 metroko desnibelarekin.

Euskal Herriko hainbat txotkatik etorritako mendizaleek osatuko dute etziko parte-hartzaileen zerrenda. Eta, antolatzaleek azaldu dutenez, parte hartzeko ezarri zuten 500 laguneko muga izena emateko epea amaitu baino lehen bete zen. "Martxo hasierarako bete ta zeuden leku horiek guztiak", zehaztu du antolakuntza taldeko Josu Izagirrek. Pozik dago aur-



Bi mendizale, iazko mendi martxan parte hartzen. LASTURKO MENDI MARTXA

ten ere parte-hartze muga bete zearrekin. "Iaz bete zen lehenengo aldiz 500 pertsonako muga, eta, aurten ere horrela izanda, pozik gaude", erantsi du.

Probaren arrakastaren arrazoia zein izan daitekeen ematera ere

ausartu da Izagirre: "Uste dugu Lasturrek berak duen ingurunea jendeari gustatu egiten zaiola eta horregatik etortzen dela hainbeste jende proban parte hartzera. Gu ere saiatzen gara guztia ondo antolatzen eta jendea

ondo tratatzen; bietako bat izango da, nire ustez".

Andutzeko gerri-bueltatik

Ibilbideari dagokionez, antolatzaleek aurreratu dute aurten ere moldaketak izango dituela martxak. Urtero bideari aldaketaren bat egiten saiatzen direla adierazi du Izagirrek, parte-hartzaileek inguru berriak ezagutzeko aukera izan dezaten. "Aurten, adibidez, Itziar aldera ere joango gara, eta, aspaldiko partez, Andutzeko gerri-bueltatik igaroko da martxa; azkeneko, 2015ean igaro ginen azken toki horretatik, baina orain pasako diren askori bide berria dela irudituko zaie".

Izagirrek eta taldekideek mendiaz gozatzera etortzeko gonbita egin diete izena emanda dauden parte-hartzaile guztiei, baina, aldi berean, lasai ibiltzeko eskatu diete, aparkatzeko garaian gerta daitezkeen arazoak saihesteko. "Jendeak, ziur aski, aparkatzen hogei bat minutu galduko ditu, eta, beraz, pazientziarekin etortzeko eskatzen diegu. Denera 500 lagun izango dira, eta ez dago korrika eta presaka ibili beharrik ere".

Dinamizatzaile berria Zuhatzan eta Debako Kultur Elkartean

Julen Bartolome Urkiola eibartarra Kultur Elkarteko eta Zuhatzan Euskara Elkarteko lantaldeetara batu da. Urtarrilaz geroztik, dinamizatzaile-lanetan dihardu bi elkarteetan, 2020. urtetik zeregin horren ardura izan duen Alex Turrillasi lekukoa hartuta.

Elkarlan-hitzarmen bat sinatu ostean, koordinatzailea kontratatzeko lan-deialdi bateratua egin zuten bi elkarteek, eta Bartolomek eskuratu du, hain zuzen, lanpostua.

Aurrez aurre nahiz telefonoz

Kultur Elkarteko egoitzan aritzen da egunerokoan, aurrez aurreko arreta zerbitzua eskaintzen: astelehenetan eta ostegunetan goizez (09:45-14:30) izaten da bertan; astearteetan eta asteazketan, berriz, arratsaldean (14:45-19:30). Halaber, telefonoz ere badago dinamizatzailearekin harremanetan jartzeko aukera, 688 82 37 88 zenbakira (Kultur Elkartea) edota 613 92 01 73ra (Zuhatzan) deituz edo idatziz.

Barrena astekaria DOAN jasotzen jarraitu nahi duzu?

DEBA-ITZIAR

Apirilaren 17tik aurrera astekaria etxean jasotzeko ezinbestekoa izango da eskaera-orria betetzea

*Zuhatzako bazkide bazara ez daukazu eskaera-orria bete beharrik

Eman izena!

☎ 632 04 33 22 ☎ 943 19 13 83

📍 Eskaera-orria online bete:

barrena.eus/harpidetzak



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINTZAK

Elgoibar. Titulu soziosanitarioa duen zaintzaile bila gabiltza, adineko bat zaintzeko. Ordutegia: 09:30etik 10:30era eta 18:45etik 19:45era. 606 71 56 73

ESKARIAK

Elgoibar. Lan bila. Adineko pertsonak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat eta orain momentuan malgutasun handia daukat ordutegian. 632 29 26 62

Elgoibar. Lan bila. Adinekoak edo umeak zaindiko nituzke. Esperientzia handia daukat. Oduka lan egiteko prest. Garbiketa lanak ere egiten ditut. 632 04 01 71

Elgoibar. Lan bila. Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeetako garbiketa lanak ere egingo nituzke. 613 31 46 03

Elgoibar. Lan bila. Asteazken zehar, arratsalde, adinekoak zaintzeko prest nengo. Asteburuetan jardun osoz lan egiteko prest nago. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. 631 02 01 69

Elgoibar. Lan bila. Asteburuetan gauz nahiz egunez, eta asteazken zehar gauz, adinekoak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. 659 51 35 78

Elgoibar. Lan bila. Lan bila ari naiz. Zaintza lanetan edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Malgutasun osoa ordutegietan. Gauz lan egiteko ere prest. 602 19 92 52

ETXEBIZITZAK

ERRENTZAN HARTZEKO

Soraluze. Bi logela alokatzen ditut Soraluzeko baserri batean, bainu-gela pribatuarekin. 611 07 17 29


ZORION AGURRAK



ELGOIBAR

Danel eta Sabin

Zorionak, Danel eta Sabin! Igandean, 10 urte! Pila bat maite zaituztegu. Aitabxoren eta amabxoren partetik, muxu potolo bat.



ELGOIBAR

Maite


Zorionak, Maite! segi orain arte bezain alai. Muxuak, etxeko partetik.



ELGOIBAR

Ane

Zorionak, Ane! Martxoaren 22an, 8 urte! Ondo pasa! Muxu bat etxeko eta, bereziki, Sararen partetik.



ELGOIBAR

June

Zorionak, June, familiakoen eta lagunaren partetik. Izugarri maite zaitugu. Muxuak, denon partetik.



ELGOIBAR

Ibai

Zorionak, Ibai! Igandean 5 urte! Oso ondo ospatu! Patxo potolo bat, etxeko partetik.



ELGOIBAR

Anike

Anike, zorionak, maitea, familiakoen partetik! Askoko maite zaitugu.



ELGOIBAR

Maren

Zorionak, Maren! 11 tirakada belarrietatik! Gozatu eguna!



ELGOIBAR

Elene

Zorionak, maitea, zure lehenengo urtebetze honetan! Danelen, amabxoren eta aitabxoren partez. Askoko maite zaitugu.

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldatetarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENA ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Zatoz ate irekietara!



AUKERARIK
ONENA,
ETORKIZUNA
DUENA

MARTXOAK 24



LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Apirilak 13, astelehena

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Bereziakotako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera meritua ere baloratuko zaizkie.
- Elkarriketak: maiatzak 18-28

ELGOIBARKO IZALZA
Berrizartzearen Transparenzia

• www.elgoibarkoizarra.eus (lan poltsa)

• 943 741 626 / 643 499 169

• kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

SORALUZE

II. Urteurrena

**Jesus Maria
Laskurain Zangitu**

2024ko martxoaren 6an hil zen, 78 urte zituela.



Eskerrik asko
bizitzan eman zenigun guztiagatik eta orain,
zauden lekutik,
bidaltzen diguzun berotasun eta laguntzagatik.

losu, Lore eta Sonia

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debarrenean

ESKELAK JARTZEKO:

943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:

DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383

ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112

ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350

SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295 - 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.

Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eua

OSTIRALA 13

- **ERMUA Erakusketa: Martxoaren 8ko Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak.** Martxoaren 31ra arte. Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 19:30era. Ostiraletan goizez bakarrik.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **MENDARO Odol ateratzea** Mendaroko ikastolan, 17:00etatik 21:00etara.
- **ERMUA Gurasolagun irekia tailerra** Korrika txikirako eta handirako apaingarriren bat egingo da. Lobiano Kulturgunean, 17:15ean.
- **ERMUA Erakusketa: 'Paris Syndrome'** Martxoaren 22ra arte. Lobiano Kulturgunean, 18:00etatik 20:00etara.
- **ELGOIBAR Zinema-foruma eta kafe-tertulía.** Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.
- **ERMUA Elkarretaratzea: 'Gerrarik ez'** Orbe Kardinala plazan, 19:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Vitalia Samuilova: ¿Quién lleva a quién?'** Apirilaren 28ra arte. Oreaka Art galerian, 19:00-20:00, asteburuetan.
- **DEBA KulturEkin: Alain Zulaikaren 'Magia zaparrada'** Sarrerak 4 euro: www.labur.eus/nialakulturekin. Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **SORALUZE Mikel Gorosabel** Asigor tabernan, 20:30ean.
- **ERMUA 'Marcela'** antzerkia Sarrera 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Kontzertua: Bikustik** Derry tabernan, 21:30ean.
- **MENDARO Garizumako hitzaldi-zikloa**

- Azpilgoetako parrokian, 21:00etan.
- **DEBA Bertso afaria: Aner Peritz eta Nerea Ibarzabal** 24. Korrika Kulturaren baitan antolatuta. Sarrera 30 euro. Menu begetarianoa erreserbatzeko, idatzi debakoarranoelkartea@gmail.com-era. Arrano Elkartean, 21:30ean.
 - **MENDARO 'Zerua motxailen aterpe' bertso saioa** Sarrera 8 euro. San Agustin kulturgunean, 22:00etan.
 - **DEBA Mendata institutuko DBH-4ko ikasleen moda desfilea** Sarrera 5 euro. Aldats pilotalekuan, 22:00etan.
 - **ERMUA M-8ko liburu-aukeraketa eta irakurketa gida** Azken eguna. Liburutegian eta Emakumeen Topalekuan.

LARUNBATA 14

- **MENDARO Motxaila Eguna** 09:00 Aitzbeltz kobazulora irteera, Gaztetxetik abiatuta. 11:00 Ospakizuna Aitzbeltz kobazuloan: ipuin kontalariak, poesia, musika, hamaiketakoa... —aldagela eta duxak frontoian—. 15:00 Gaztetxean bertso-bazkaria —Elixabet Etxandi, Txaber Altube eta Aitor Tatiegi—. Tiketak 12 euro —Uztargi tabernan—. 18:30 Xaukena elektrotxarangarekin kalejira. 22:30 Kontzertuak Gaztetxean: Aramu eta Inguma.
- **SORALUZE Zuhaitz landaketa** Olako aparkalekutik, 09:30ean
- **ELGOIBAR Autodefentsa tailerra** Olaizaga kiroldegian, 09:30ean.
- **MENDARO Herri-kirol topaketa** Mendaroko Arno guraso elkarteak antolatuta. Soralue eta Mutrikuko umeek ere har dezakete parte. Mendaroko



UNAI MARTIN ESTENAGA

MALLABIA Martin II. Borrokalaria Eguna Martxoaren 14a, larunbata. 12:00 Dantzariak —Gazte Alai dantza taldea eta Anderren taldeko dantzariak—. 12:30 Mendibil abesbatza eta ondoren herri kirolak —gisasolatarrak eta Anderren kuadrilla— eta bertsolariak —Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballes—. 13:00 Pilota partiduak —pilota eskolako umeak eta Anderren ingurukoak—. 14:00 Trikipoteue. 15:00 Herri bazkaria frontoian —nagusiek 25 euro eta umeek 15 euro—. 16:45 Sorpresa akustikoa, *Kontixu*. 17:00 Errifen zozketa. 17:10 Mus txapelketa frontoian. 18:00 Burrumbada elektrotxaranga. 21:00 Kontzertuak: Aphokalipsis, Desein eta Storbais.

- Herriko Enparantzan, 10:30ean.
- **DEBA Egunekeko Zentroa egunero irekitzeko eskatzeko sinadura bilketa** Udaletxe azpiko arkupeetan, 11:00etatik 13:00etara.
 - **MENDARO Garizumako hitzaldi-zikloa: 'El rollo'** Azpilgoetako parrokian, 11:00etan.
 - **DEBA Ipuin kontaketa antzeztua** 24. Korrika Kulturaren baitan antolatutako egitasmoa. Kultur Elkarteko plazan, 12:00etan.
 - **ERMUA XII. Sagardo Eguna** 12:30-14-30 Txotx! 17:30-19:30 Txotx! 19:30 Karropoteoa. 22:00 Kontzertua. Pintxoak eta basoa 7 euro. Orbe Kardinala plazan.
 - **ERMUA 'Paris Syndrome'** Lobiano Kulturgunean, 12:00etatik 14:00etara.
 - **MENDARO Mendaro Herria Saria** lasterketa Mendaroko Txirrindulari Elkarrekin antolatuta. Herriko Enparantzatik, 16:00etan.
 - **ERMUA 'Zazpi loreen ipuina'** Lur Usabiagaren eskutik Udal Liburutegian, 17:30ean.
 - **DEBA 'Promesa berdina egin diegu lagun guztiei'** ikuskizuna 24.

- Korrika Kulturaren baitan antolatutako egitasmoa. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan.
- **DEBA Kontzertua: Sin PalaBrass taldea** Musikeneko ganbera musikako ikasleek eskainiko dute kontzertua. Santa Maria elizan, 20:00etan.
 - **MUTRIKU Gipuzkoako herriarteko bertsolari txapelketa (Debabarreneko finala)** 18:00etan, triki-poteoa izango da, Gaztetxetik hasita. Gaztetxean, 20:00etan.

IGANDEA 15

- **ITZIAR Lasturko IX. Mendi Martxa** Bi ibilbide: 27,37 kilometrokoa —1.327 metroko desnibelarekin— eta 20,23 kilometrokoa —1.009 metroko desnibelarekin—. Lasturko San Nikolas plazan, 07:30ean.
- **DEBA Mendi irteera bateratua: Irurtzun-Trinidad** Autobus galekuan, 07:45ean.
- **DEBA Mendi irteera ikasleekin: ibilaldi neurtua (Antzuola)** Autobus galekuan, 08:30ean.

- **MENDARO Kilimon bailaran zehar ibilaldia EHUKO arkeologoekin** Arno guraso elkarteak, Suharri elkarteak eta EHUKO arkeologoek antolatuta. Presapen, 10:00etan.
- **DEBA Egunekeko Zentroa egunero irekitzeko eskatzeko sinadura bilketa** Udaletxe azpiko arkupeetan, 11:00etatik 13:00etara.
- **ELGOIBAR Ana Goitiaren 'Katana' umorezko bakarrizketa** Aita Agirre kulturgunean, 12:30ean.
- **MALLABIA Emakumeen Osasun Eskola: 'Menopausia vs Andropausia'** Kontzejuzarran, 12:30ean.
- **ELGOIBAR 'Hhahh: Denboraren albuma'** antzezlan Naia Membrillera elgoibartarrak antzeztuko du. Herriko Antzokian, 16:30ean.
- **DEBA Ekain pailazoa Hautsak harrotzen** ikuskizuna. 24. Korrika Kulturaren baitan antolatutako egitasmoa. Antzerkia eta umorea 12 urtetik beherakoentzat. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.
- **ERMUA 'Paris Syndrome'** Lobiano Kulturgunean, 12:00etatik 14:00etara.

ASTELEHENA 16

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **ELGOIBAR 'Irudi feministak adimen artifizialarekin sortzea'** tailerra Lilan, 17:30ean.
- **ERMUA Kontzertua: Amildegia eta Hell Beer Boys** Gazte Asanbladaren 40. urteurrena. Gaztetxean, 21:30ean.

ASTEARTEA 17

- **ELGOIBAR Greba orokorraren pikete informatiboak** Maalako parketik, 10:30ean.
- **ELGOIBAR 'Paperezko hegoak'** literatura tailerra Peru Magdalenaren eskutik. Gotzon Garate udal liburutegian, 17:00etan.

- **ELGOIBAR Manifestazioa, sindikatuek deituta** Kalegoen plazatik, 18:30ean

ASTEAZKENA 18

- **SORALUZE Peto banaketa eta AROA planaren aurkezpene** Korrika Kulturaren baitan aurkeztuko da. Plaza Zaharreko karpan, 18:00etan.
- **SORALUZE Gaztelerazko irakurle taldea: 'Estupor y temblores'** Udal liburutegian, 18:30ean.

OSTEGUNA 19

- **SORALUZE 'Irakurri eta Gozatu' kanpaina** Herritarrak euskaraz irakurtzera animatzeko eta euskal literaturari bultzada emateko kanpaina. Udal Liburutegian eta liburu-saltokietan.

OSTIRALA 20

- **ERMUA Irteera: Palentziako mendiak** Artarrai Mendi Taldeak antolatuta, martxoaren 20tik 22ra. Hainbat ibilbide: batzuk edozein pertsonari irekiak eta beste batzuk federatuta daudenentzat bakarrik. Agirre Kirolak, 18:00etan.
- **MALLABIA EHko Gomazko Paleta Txapelketako finala** Emakumezkoen Elite maila. Mallabia I. Pilotalekuan, 19:00etan.
- **ERMUA Antzezlanak: 'R & J'** Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **MENDARO Garizumako hitzaldi-zikloa: 'Regreso al futuro'** Mendaroko Azpilgoetako parrokian, 21:00
- **MENDARO Gonzalo del Valen kontzertua** Mesa 7 elkarteak antolatuta, Udalaren, Gararocken eta Uztargi tabernaren laguntzarekin. Sarrera 15 euro. San Agustin aretoan, 21:30

LARUNBATA 21

- **MALLABIA** Frontenis **Txapelketa Mistoa** AD Mallabia FTK antolatuta. Mallabia I. Pilotalekuan, 09:00etan.
- **ITZIAR** Kardantxulo **Eguna** Itziarko Gazte Asanbladak antolatuta. Mozorrotzeko gaia: Mitologia. 10:00 Mendi buelta, plazatik abiatuta. 13:00 Triki-poteoa, Kalebarrenetik. 15:00 Bazkaria plazan –txartelak 15 euro–. 19:00 Skapaie elektrotxaranga. 23:00 Ahantzi erromeria, plazan.
- **DEBA** Eguneko Zentroa egunero irekitzeko eskatzeko sinadura **bilketa** Udaletxe azpiko arkupeetan, 11:00etan.
- **ITZIAR** Bisita gidatua: **'Lastur familian'** Prezioa: 10 euro –12 urtetik beherakoentzat: 5 euro– Irteera puntua: San Nikolas plaza, Lastur, 11:00etan.
- **DEBA** Musika Banda. **Bazkideen omenezko kontzertua** Debako elizako klaustroan, 13:00etan.
- **MALLABIA** Euskal Herriko XII. Emakumezkoen Gomazko Paletako **Txapelketa** Mallabia I. Pilotalekuan, 17:00etan.
- **ERMUA** Kontzertua: **Jo Buddy** Mendaroko Sarrera: 10 euro. Lobiano Kulturgunean, 20:00etan.

IGANDEA 22

- **DEBA** Eguneko Zentroa egunero irekitzeko eskatzeko sinadura **bilketa** Udaletxe azpiko arkupeetan, 11:00etan.
- **SORALUZE** 'Ekain-Txou: Hautsak harrotzen' **zirku-emanaldia** Aisialdia Elkarrekin lantaldeak eta Korrika Kulturalak elkarlanean antolatuta. Herri Antzokian, 12:00etan.
- **DEBA** Ipuin kontaketa **saioa** Ispiluen gelan, 17:30ean.
- **MENDARO** 'Andereño Rosita Korrikan' **antzezlan**a San Agustin kulturgunean, 18:30ean.

ASTELEHENA 23

- **ERMUA** Odol-ateratzeak Bizkaia etorbidea 14 – Kaltxangoko galelekuan–, 09:30ean.
- **MENDARO** Inazio **Bereziartua musika eskolakoen talde kontzertuak** Musika eskolako auditoriumean, 19:15ean.

ASTEARTEA 24

- **SORALUZE** Ipuin **kontaketa** 4 urtetik gorakoentzako ipuin-kontakizuna egingo du Ixabel Agirresarobek. Liburutegian, 17:00etan.
- **ELGOIBAR** 'Euskara eta kulturartekotasuna' **herriarrei zuzendutako saioa** Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 18:00etan.
- **DEBA** Irakurketa kluba: **'Las vidas secretas de las esposas de Baba Segi'** (Lola Shonegin) Ainhua Aldazabalek gidatuko du saioa – gazteleraz–. Ostolaza udal liburutegian, 19:00etan.
- **MENDARO** Inazio **Bereziartua musika eskolakoen talde kontzertuak** Musika eskolako auditoriumean, 19:15etan.

ASTEAZKENA 25

- **DEBA** Kalean Kantuzen **emanaldia** 24. Korrika datorrela eta, Kalean Kantuzeko kideak kalera aterako dira. Kalean zehar, 12:30ean.
- **SORALUZE** Herriko **pilotarien partidak** Korrika Kulturalaren baitan antolatuta. Kiroldegian, 17:00etan.
- **ELGOIBAR** Hitzaldia: **'Gazteak eta etxebizitza'** Udaleko Gazteria eta Hezkuntza Sailak antolatuta. Izena eman behar da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:00etan.
- **ITZIAR** 24. Korrikari **ongietorria**. Iritsiera ordua: 18:08.

- **DEBA** 24. Korrikari **ongietorria**. Iritsiera ordua: 19:06.
- **ERMUA** Alboka **Musika Eskolaren udaberriko kontzertua** Ermua Antzokian, 19:00etan.
- **ELGOIBAR** Angel Maria **Tobajasen liburuaren aurkezp**ena Angel Maria Tobajasek *Guía del bajo Debad*e *Morkaiko Leizarpe espeleologia taldea* liburua aurkeztuko du, Morkaikoren eskutik. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 19:00etan.

OSTEGUNA 26

- **ELGOIBAR** Korrika **Txikia** Ikastolak eta Herri Eskolak egingo dute. 15:00etan, Maalatik hasita.
- **DEBA** CIMASUB: **Urrezko saioa** Kultur Elkartean, 18:30ean.
- **SORALUZE** Bertso **poteoa bert**Sorarekin Korrika Kulturalaren baitan antolatuta, 19:00etan.

ZINEMA
ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA 'Tres adioses' Ostirala, 13: 19:00 Larunbata, 14: 19:00, 22:15 Igandea, 15: 19:00 Astelehena, 16: 21:00 'La tarta del presidente' (Ongarri zinekluba) Asteazkena 18: 21:00 'Cumbres borrascosas' Osteguna, 19: 19:00 Ostirala, 20: 19:00 Larunbata, 21: 19:00, 22:15 Igandea, 22: 19:00 Astelehena, 23: 21:00 'Zootropolis' Igandea, 22: 16:30 'Laburbira' (Euskarazko film laburren emanaldia) Asteazkena, 25: 21:00
MENDARO
SAN AGUSTIN KULTURGUNEA 'Laburbira' (Euskarazko film laburren emanaldia) Igandea, 15: 18:00
ERMUA
ERMUA ANTZOKIA 'El vestido' Larunbata, 14: 19:30 Astelehena, 16: 20:30 'Cumbres borrascosas' Larunbata, 14: 22:00 Igandea, 15: 19:30
SORALUZE
ZINEMA 'Gaua' Igandea, 15: 17:00
EIBAR
COLISEO ANTZOKIA 'El agente secreto' Larunbata, 14: 19:15, 22:30 Igandea, 15: 16:30, 20:00 Astelehena, 15: 19:30 'Torrente Presidente' Larunbata, 14: 17:00, 19:15, 22:30 Igandea, 15: 17:00, 20:00 Astelehena, 15: 19:30 'Los pecadores' Larunbata, 14: 22:30 Igandea, 15: 20:00 Astelehena, 15: 19:30 'Chirp, honey hillseko ikertzailea' Larunbata, 14: 17:00 Igandea, 15: 17:00

OSTIRALA 27

- **SORALUZE** Korrika **Txikia** 11:00etan. Tailerrak kalean, 16:30ean. Buruhandiak, buruarinak eta musikariak, 18:00etan. Mugi Boogie DJa, 18:30ean.
- **ERMUA** Korrika **Txikia** Plazatik, 16:00etan.
- **ERMUA** Porrotx, **Marimotots, Pupu eta Lore: 'Zerua lapurtu dute'** Sarrera: 6 euro. Ermua Antzokian, 17:00etan eta 19:00etan.
- **ELGOIBAR** Elgoibarko **isiltasun eskolako**en **topaketa** Juan Cruz Igartua apaizak gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan.
- **ELGOIBAR** 'Scape room' **antzezlan**a Korrika Kulturalaren baitan antolatu dute AEK euskaltegiak, Udalak eta Ongarri zineklubak elkarlanean. Sarrerak *herrikoantzokia.eus*-en. Larunbatetan Herriko

- Antzokiko leihatilan (19:15-21:30) eta egunean bertan. Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **SORALUZE** **Bakarrizketak** Korrika Kulturalaren baitan antolatuta. Gaztetxean, 19:00etan.
 - **DEBA** Euskal **presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko** **elkarretaratzea** Foruen plazan, 19:30ean.
 - **ERMUA** Abesbatzen **konzertua** Xuxurkulariak (Zornotza), Kiriikiño (Mañaria) eta Pispillu (Ermua). Elizan, 19:45ean.
 - **ELGOIBAR** Euskal **presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko**

- elkarretaratzea** Kalegoen plazan, 20:00etan.
- **MENDARO** Euskararen **egoeraz hitz egiteko saioa** Herriko euskararen erabileraren datuak jakinaraziko dituzte. Udaletxeko udalbatza-aretoan, 17:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK
13 BARIKUA Soto / L. Apraiz / I. Ugarte
14 ZAPATUA Garitaonandia / L. Apraiz/ A.M. Baz / *M.I. Ugarte
15 DOMEKA Garitaonandia / L. Apraiz / A.M. Baz
16 ASTELEHENA Arriola / H. Burgoa / M.I. Ugarte
17 MARTITZENA Fernandez / H. Burgoa / I. Lecumberri
18 EGUAZTENA Yudego / H. Burgoa /A. Alcalá
19 EGUENA Yudego / H. Burgoa / M. Alves
20 BARIKUA Barrenebtxea / A. Zalduegi / A.M. Baz
21 ZAPATUA Soto / *Yudego / A. Zalduegi / M. Alves / *I. Lecumberri
22 DOMEKA Soto / A. Zalduegi / M. Alves
23 ASTELEHENA Garitaonandia / L. Apraiz / I. Lecumberri
24 MARTITZENA Arriola / L. Apraiz / A. Alcalá
25 ASTEAZKENA Fernandez / L. Apraiz / M. I. Ugarte
26 OSTEGUNA Yudego / L. Apraiza / A. M. Baz
27 OSTIRALA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
★09:00-14:00 / ★09:00-13:30

2026KO BOTIKA ORDUTEGIAK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

AZKEN BERBA

Zero kilometroa



AMATIÑO

Jakina gero, lerro hauek irakurriko ditugunon artean nagusi garena zero kilometroaren aldekoak. Beste kontu bat da zer ote den alde egotea. Alde egotea bada noizbait inguruko tomateak edo barazkiak erostea, orduan bai. Baina hori nahiko ote da gurea bezalako ekonomia industrialean?

Seguru gutako gehienok ez gabela hasiko makina-erremintak, trenak eta robotak erosten, baina ez al dira zero kilometrokoak ere hainbat esku-erreminta, bizikleta, ehiza-tresneria, kirol-arropa, sukalde edo bulegotako gailuak, eta gure edozein dendariren edo profesionalen produktuak eta zerbitzuak? Gure sektorerik handienetakoa automozioa denez –Euskadiko BPGaren %13–, gogoan izaten al dugu autoa –europarra– erosterakoan?

Eta gutxitan pentsatu arren –inguruko administrazio, eskola, kultura, literatura eta hedabideak tarteko–, ez al da euskara zero kilometroaren ezaugarriarik handiena? Gatozen berriro baserri-girora. Euskaldunok gaztazaleak gara eta gaztarik onenak gureak omen dira. Bai, baina gure gazta-kontsumoaren %90 kanpotik dator.

BUKATZEKO

Dolmenen Ibilbideko piezak lehen aldiz ikusgai Elgoibarren, Soraluzen eta Bergaran

Erakusketa ibiltari batek pieza arkeologikoak erakutsiko ditu hiru herrietan

Egoitz Unamuno Loidi DEBABARRENA Elgoibarko, Bergarako eta Soraluzeko udalek, Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Debege-sarekin batera, egitarau zabala antolatu dute Dolmenen Ibilbideko ondarea eta bertan topatutako materialak herritarrei erakusteko.

Hamabi urte dira Dolmenen Ibilbidea izenarekin Plazentzia-Elosua estazio megalitikoan dagoen ondarea aztertu eta gizarteratzeko ekimena abiatu zutela, eta orain, epealdi horretan aurkitutako pieza arkeologikoak eta aurretik, duela ehun urte baino gehiago, Joxe Migel Barandiaranek eta bere taldeak aurkitutakoak erakutsiko dituzte jendaurrean, erakusketa baten bitartez. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Gipuzkoako aztarna arkeologiko guztiak publikoak diren arren, material horietako batzuk lehen aldiz erakutsiko dituzte jendaurrean.

Duela 5.000 urteko bizimoduaren arrastoak

Aurkitutako materialen garrantzia eta horiek eskaintzen duten informazioaren balioa azpimarratu ditu Jesus Tapiak, Aranzadiko arkeologo eta indusketen gidariak. Urteotan aurkitutako piezen artean, egunerokotasunari lotutakoak eta hileta-mundukoak bereizi ditu, eta, guztien artean, ondorengoak nabarmendu: lepoko apaingarriak, eguneroko bizitzari lotutako zeramika zatiak, suharrizko tresnak eta



Deba Naturako kideak, Arribiribiletako zutarriaren ondoan (2014). E.U.

giza aztarnak; tartean, erraustutako hezurak eta bestelako materialak. Tapiak azaldu duenez, Dolmenen Ibilbideko tumulu eta trikuharriak "2.000 mila urtean zehar hileta-errituak egiteko behin eta berriz erabili ziren eraikun-

Barandiaranek eta bere taldeak aurkitutako piezak ere erakutsiko dituzte

tzak" dira, eta haietan aurkitu diren aztarnak laguntzen dute ulertzen nolakoa zen bizimodua duela 6.000-5.000 urte. Tapiak aitortu duenez, kasu askotan ondarea "nahastuta eta hautsita" topatu dute, baina hura "txundituta" dago hamabi urteotan aurkitu dutenarekin, eta, haren ustez, "garaia da" aurkitu dutena "bertatik bertara" erakusteko.

Erakusketa ibiltaria eta ekimen osagarriak

Antolatutako ekimenen artean, herririk herri joango den erakusketa ibiltaria izango da garrantzitsuenak. Hala, martxoaren 19tik 26ra erakusketa Elgoibarren izango da ikusgai, Aita Agirre kulturgunean; apirilaren 10etik 26ra bitartean, Bergaran, Aroztegi aretoan; eta, azkenik, apirilaren 27tik maiatzaren 9ra Soraluzen izango da, kiroldegiko erakusketa gelan.

Erakusketaz gain, Debege-sak eta hiru udalek beste hainbat ekimen antolatu dituzte. Esaterako, solasaldia adituekin: apirilaren 21ean, 18:00etan, Bergarako Aroztegi aretoan. Bertan izango dira Miriam Cubas –historiaurreko zeramikan aditua–, Ignacio Montero –arkeometalurgian aditua–, Francisco Etxeberria –antropologia fisikoko eta auzitegi-antropologian aditua– eta Monica Ruiz Alonso –ikatz eta hazi karbonizatuen analisis aditua–.

Bestalde, apirilean, Dolmenen Ibilbidearen gaineko ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute Soraluzen, adituen eta herritarren testigantzak jasoko dituenak.

Azkenik, bi bisita gidatu antolatuko dituzte Dolmenen Ibilbidean zehar: bata, martxoaren 21ean –larunbata–, euskaraz, eta bestea, maiatzaren 2an –larunbata–, gazteleraz.

Barrena
BATZEN GAITUENA

egin zaitez
Barrenakide!
barrena.eus/egin-kide



ZOZKETA



Saria:
Errigoraren hiru saski
Barrenakide sarituak:



Maialen Zabala Alvarez (Deba)
Jose Luis Azpillaga Goenaga (Eibar)
Maite Mayora Elizondo (Mendaro)